

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 2a / 680. zenbakia



Legearen arabera, herriko kale-
ek eta zerbitzuek guztiondako
egokituta egon behar dute, bai-
ta zailtasunak dituztenendako
ere; baina oraindik hori ez da
betetzen, ezta Arrasaten ere.

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/6 • KIROLA: 'PITXI' HERRERO HIL EGIN DA/9

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 2**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 3**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 4**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 5**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 6**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 7**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 8**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 9**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualaroia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943-79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. ... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

GAY ETA LESBIANEN GAINEAN

Egunotan, herrian, bi erakusketa daude gay eta lesbianen gainean. Bata, Monterongo erakusketa aretoan; eta bestea, Jai Zale tabernan. Biek hala biek gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatu gura dituzte.

SAN JUANETAKO ARGAZKIAK

Egunotan, Kajoi tabernan San Juanen gaineko ia mila argazki ikusteko aukera dago. Tabernako atzeko aldean, ordenagailu baten bidez, bi segundoan behin proiektatzen dituzte.

PUNTAKO GITARRA JOTZAILEAK

Gaur, egubakoitza, Joe Satrianik, Steve Vaik eta Robert Fripppek G3 2004 biraren Euskal Herriko kontzertua egingo dute Musakolako kiroldegian. 09:00etan izango da.

GAITARIEN KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Gaiteros de Elciego & Friends taldeak kontzertua egingo du Monte tabernaren ondoan. 20:00etan izango da.

ERROZIOAREN ERROMERIA

Etzi, domeka, Errozioaren erromeria egingo du Al Andalusen. 10:30ean, meza errozieroa egingo dute Santa Teresa elizan. Horren ostean, egun osoko jaia egingo dute Arruenan.

AEDrenAGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA

Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

KONTSEILUAREN KAMISETAK

Kontseiluaren *Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa* leloarekin kamisetak atera dituzte, eta AEDn daude salgai 20 eurotan.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN


Uarkape pilotalekuaren arazoa epaitegietan

EAK eta HBk errekurtsioa aurkeztu zuten epaitegi gorenean, Uarkape pilotalekuaren gainean erabaki zenaren aurka. Alderdi horien ustez, pilotalekua erakitzeak ondorio latzak izan zitzaizkeen, hasieran lanak esleitu zitzaizkion Tecsa enpresak kalte-ordainak eska zitzaizkela.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kakotu"



Pertsona okertu, zahardadea edo.
— Petra ikusi dot kalia eta ziero kakotuta dago.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Eguaztenero, estilismoaren tartea izango dugu Mainer Arriaran arropa diseinatzailearekin

Urtero moduan herriko jaien ostean, udako aurpegiak jantzi da Arrasate Irratia. Horrela, bada, astelehenean estreinatuko duen gure irratia *Uda giroan* saioa, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Eta berrikuntza ugariarekin dator oraingo honetan ere.

Horien artean, datorren eguaztenetik aurrera Mainer Arriaran diseinatzailearen eskutik izango dugun estilismoaren gaineko tartea. Mainer, 22 urteko arrasatearra, orain dela lau urte hasi zen

moda kontuetan. Arropa diseinu ikasketak egin ondoren, orain bere kontura dabil lanean eta, besteak beste, hainbat estetika zentrotarako uniformeak egiten ditu. Eguaztenetik aurrera, baina, Mainerrek beste lan bat izango du: arropa egokiak aukeratzeko lagunduko digu. Lehenengo atalean bainujantziak izango ditugu hizpide, eguaztenean, 10:30ean.

Bestalde, zapatuan eta domekan, 10:00etan, asteari gainbegiratu egingo diogu. Hainbat elkarrizketa errepikatuko ditugu.

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 29	12 °C
MAXIMOA Zapatua, 26	35 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	2,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	23 °C	14 °C	- l/m²
Eguena, 24	28 °C	14 °C	1,2 l/m²
Egubakoitza, 25	28 °C	17 °C	- l/m²
Zapatua, 26	35 °C	15 °C	- l/m²
Domeka, 27	28 °C	15 °C	0,9 l/m²
Astelehena, 28	24 °C	17 °C	- l/m²
Martitzena, 29	28 °C	12 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Olga Alarcon, Gehituko kidea; Mari Carmen Llodio, Donejakue bideaz; Joxe Arantzabal, Garibairen arima galduaz; Mainer Arregi, eguzkitako betaurrekoen eta beherapenen gainean...

DOMEKA
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak.
Elkarrizketak.
Estilismoaren tartea.
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.
Eguraldi iragarpena.
Euskal Herriko txokoak ezagutzen.
Zozketak, zorion-agurrak.

11:05 **Izarren ordua:** abesti ezagunak.
12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
12:15 **Musika.**
13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
14:00 **UDA GIROAN** errepikapena.
19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**


KALEINKESTA/ Uste dozu kalien traba arkitektoniko asko dauzela?



MAITE GONZALEZ
Langillie



JAVIER HERRARTE
Pensionistie



IKER MEDINA
Langillie



ANA KORTABARRIA
Langillie



SONIA COLINO
Langillie



ARANTZA BEITIA
Ikaslie

Bai, lan batzuk egin dauen arren, ondiokan eskaloio mordue dauz traban; eta gainera, aldapa haundixek dauz. Horrez gain, karreterara jeisteko aldapa batzuk apur bat peligosuek die.

Izen leike. Neuk Udala bi gauza eskatu nutzen, eta bixek bete daue: igerileku txikira sartzeko eskaillerak eta Monterrongo barandillie. Faltan igerten dotena da auzuetan banku gehixau.

Bai, asko. Taberna eta etxe askotan sartzeko eskaloio haundixegixek dauz, eta askok problemak eukitten daue. Horrez gain, karreteratik espaloira igotie be ez da bape erraza.

Bai, herrixe eskaillera eta kokkekin beteta dau. Etxe eta taberna askotara sartzeko trabak dauz, baitte leku publiko batzuetara sartzeko be. Konponbidie aldapak jartie da.

Bai. Lan apur bat egin daue baiñe ondiokan be lan haundixe dau egitteko, auzuetan batez be: zebra-bidiek ondo jarri biher die, jente askondako espaloio batzuk altuegixek die...

Bai, gainera jende askok automobille gaizki aparke-tan dau eta horrek be kalte haundixe egitten dau. Aldapa gehixau jarri biher die, eta jentiek errespeto haundixae euki biher dau.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ISPILU APURTZAILEAK Ez da kontu berria, baina bai amorratzeko modukoa. Aurreko baten salatu genuen Munar inguruan hainbat ezezagunek asteburuetan autoetako ispiluak apurtzen dituztela. Joan den aspaldian, berriz, Ferixalekuan ere halakoak egiten hasi dira. Hain zuzen ere, Okendo kaleko bizilagun batzuen autoetan apurketak egin dituzte, eta horixe salatu dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 14

GAZTEAK / 13

Ezinduendako oztupoak

Zailtasunak dituzten lagunendako Arrasaten clauden hainbat oztupo aztertu ditugu.

Errozioaren erromeria

Domekan, Errozioaren erromeria egingo du Al Andalus elkarteak. Egun osoko jai izango da.

'Nothing Without'

Skatearen eta musikaren gaineko *Nothing Without* fantzine berria kalean dago.

ASTEKO DATUA

466

UME ETA GAZTETXOK EMAN DUTE IZENA UDALEKUETAN

466 ume eta gaztetzok eman dute izena Txatxilipurdik antolatutako dituen udalekuetan. Gazte horietatik, 298 udaleku irekietan ibiliko dira, (eta beste 168 udaleku itxietan (herritik kanpo)).

BESTE EKESANA

“

Goñiko Euskal Udalekuen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta, ospakizun jai bat antolatzea pentsatu dugu, Goñin ibilitako lagun guztiok bildu eta guztiok elkarrekin egun eder bat igarotzeko; aspaldiko kontuei hautsak astindu eta etorkizunera begira jartzeko. Jai irailaren 18an ospatuko da Goñin, eta bertan, bertsolariak, jokoak, kontzertuak, erakusketa, familia bazkaria... izango ditugu. Umeentzat ere egitarau berezia egongo da. Bertara joan nahi duenak 20 euro sartu beharko ditu Kutxan. Diru sarrerarekin batera jaira inguratuko den pertsonaren izen abizenak eta kontakturako telefono bat jarri beharko dira. Diru sarrera egiteko uztailaren 15a izango da epemuga (...) Goñira joateko autobusak izango dira”

EKAIN ZUBIZARRETA
'BERRIA' / 04-06-16

HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta



Leon XIII.a

X. mendeari ongietorria egin eta kristandekoko gailurrak santifikatzeko asmoz, mendiak gurutzez josteko deia zabaldu zuen Leon XIII.a aita santuak lau haizetara, urbi et orbi. Euskaldunok sutsu ekin genion lanari. Gorbeiakoa izan zuten lehena, baina izotzak eta haizeak mendean hartuta, ez zuen zutik luzaro iraun. Bigarren gurutze batek ere laster amore eman zien naturako jainkosa paganoei. Hirugarrenak han dirau gaurdaino tontorrean, hama-zazpi metroko Eiffel dorreñoa.

Gure ibarreko fededunak ere ez ziren makalak. Burdinazko habetzarrak hartu eta han abiatu ziren, txotxonak eginez, maldan gora. Kurtzebarri, Tellamendi, Murugain, Udaltx... Anboto bakean utzi zuten, Damaren beldur; San Nikolas santua, Udaltx ortua, Anboto! Anboto madarikatua! (hala kantatzen ei zuten umeek orain ehun urte San Nikolas egunez).

Ez naiz mendigoizale amorratua, puruak erretzearen puruz birrikak ere aspaldi errenituen, baina ez dit grazia handirik egiten mendira irten eta gailurrean gurutzea ikusteak, errespetu osoz diot gurutze-garraioan ibili zirentzat, Jesukristo lez Golgo-tan. Ez ote ziren mendi santuok nahikoa santu, mendi-santifikazioan ibiltzeko? Beste garai batzuk ziren, jakina, sotanak eta isipu zipristinak.

Baina, hau marka, modernitatearen gailurretan bizi ginela uste genuen

honetan ere, korpus dei eta opus kristi, hara, gurutzez josi nahi dizkigute berriro bazterrak, eskola publikoetako ikasgelak, biologia fakultate eta laborategiak, parlamentu eta legediak, kode zibil eta moralak; bildu gaitezen atalataikoan, pio zein ateo, denok Vatikanoren altzora! Nik neuk, zer esango dizuet ba, Ratzinger kardenala baino nahiago dut Mariandres arzobispoa.

“**San Nikolas santua, Udaltx ortua, Anboto! Anboto madarikatua!**”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Gurutze Gorria janaria banatzen

Debagoieneko Gurutze Gorriak zazpi tona janari banatu ditu ekainean egindako kanpainan. Janari hori ibarrean behar handien daukaten familiei eman diete. Guztira 139 familiak jaso dute laguntza hori, eta horietako 78 familia arrasatearrak dira.

Gurutze Gorriak aspalditik egiten du ekimen hori. Orain dela 20 urte hasi ziren horretan, *Elkartasunerako Elikagaiak* izeneko programaren bitartez. Urtean birritan egiten dute janari banaketa. Datorren banaketa urrian egingo dute.

Sutea Arrano elkartean

Egubakoitz goizean ezusteko galanta hartu zuten Ferrerrias kalean. 08:30ak aldera konturatu ziren Arrano elkartetik eta Irati tabernatik kea ateratzen zela, eta bizilagunek suhiltzaileei deitu zieten. Suhiltzaileak lehenbailehen iritsi ziren, eta ez zuten lan handia izan sua itzaltzeko. Zorionez, kalteak ez dira oso handiak izan.

Suhiltzaileen esanetan, sukaldea piztuta zegoen eta sukalde gainean zeuden materialek hartu zuten su. San Juan jaiak behar den moduan amaitu bazituzten ere, Irati taberna itxita dago orduz gero, konponketak egiteko.

Auto istripua Jose Luis Iñarra kalean

Auto istripu ikusgarria izan zen martitzen goizean Jose Luis Iñarra kalean, Mesedeetako Ama ikastetxearen ondoan. Ezbeharrak 11:30ak aldera gertatu zen. Ogia banatzen zebilen Fiat Ducato furgoneta bidetik irten eta maldan behera erori zen. Gidaria, 45 urteko gizonezkoa, bere kabuz irten zen furgonetatik, baina hala ere, eskualdeko ospitalera eraman zuten. Esan digutenez, zauri arinak baino ez ditu. Zorionez, maldan behera zeuden zuhaitzek jausialdiko kolpea zertxobait geldiarazi zuten.

**SUDC elkarteari eta gaitariei omenaldia**

San Juan jaietan omendu dituzte SUDC elkarteak eta gaitariak. SUDC elkarteak 40 urte egin ditu, eta gaitariak 25. Domekan egin ziren Arrasateko Udalak omenaldia; izan ere, urte hauetan guztietan sekulako lana egin dute herriko jaiak giroten. Bada, urte askoan segi dezatela!!!

**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran****Lehiakortasunaren faktura**

San Juanak pasatu dira eta arrasatearrak -kanpoan izan direnak eta jaietan murgildu direnak- lanean daude berriro. Uztaile noiz bukatuko den zain dago bat baino gehiago.


Jendeak oporrak hartzeko gogo handia dauka. Izan ere, eguneroko bizimoduak asko nekatzen eta erretzen du. Txipez aldatzeko premia eta gogo handia egon ohi da.

Eta ez luke hala izan behar. Horretan eragin handia dauka gaur egungo gizartean dagoen lehiakortasunak. Ondokoa baino hobeagoa izan behar duzu, edo horren itxura eman, eta ezin duzu akatsik izan. Akatsak mundu guztiak dauzka, jakina, baina horiek edukiz gero, ez dira onartu behar. Hala dio gaur egungo gizartean inon idatzita ez dagoen baina oso

ezaguna den arau jakin batek.

Aspaldian gizarteak balore asko galdu ditu, eta egungo garaietan akatsak onartzearen eta zintzo izatearen ezaugarriak galtzen dabilta.

Lehiakortasun eta jarrera gogor horiei eusteak neke eta kezka handiak sortzen ditu, eta horrela dago gizarteak, opor premian. Oporrak ondo daude, baina jarrera eta jokaera aldaketek ere lagunduko lukete.

ASTEKO IRUDIA**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLEAK AZTERKETAK EGITEN DABILTZA ORAINDIK**

Dagoeneko udan sartu gara. Igartzen da; bai, horixe. Umeak eta gaztetxoak oporretan daude, eta Txaxilipurdiren udalekuak ere gaur, egubakoitza, hasi dira. Beste batzuk lanean dabilta oraindik, baina oporrak laster helduko diren esperantzarekin. Unibertsitateetako ikasle gehienek bukatu

dituzte azterketak, eta oporretan daude. Baina guztiak ez. Mondragon Unibertsitateko ikasleak jo eta su dabilta Monterrongo liburutegian, Eskolan eta ahal duten lekuetan azkeneko gainbegiratuak egiten. Ea, bada, laster bukatzen duten, eta behingoraz azterketak aurreratzen dizkieten. /I.B.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43

CORAZON DE ENCINA
EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Astehenetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurreratuak eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztiontzako zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.



IKASTURTEAN EGINDAKO LANA BESTE BATZUEI LAGUNTZEKO

Arizmendiko Gazteluondo guneko 4. mailako ikasleek badute harro egoteko arrazoia, ikasturtean zehar egindako lana beste batzuei laguntzeko erabili dute-eta. Kontua da ikasle horiek urtean zehar hainbat ekintza egin dituztela —ingelesezko antzerkia eta merkatua, besteak beste—, eta ekintza horietan batu duten dirua euren gorde beharrean Indiako Meshana herriko nesken eskola batera bidali dute. Horrelako ekintzak txalotzekoak dira; lastima gobernuek egin dezaketenez guztiarekin ezer gutxi egitea. Ezin izango gara, baina, gobernuei begira egon.



IDIOMASTERKO IKASLEAK ZUBEROAN IZAN ZIREN KURTZO AMAIERAN, FRANTSESA PRAKTIKATZEN

Argazkian azaltzen direnak Idiomasterko ikasleak dira. Orain dela aste batzuk Zuberoan izan ziren euren irakasle Isabelle eta Reneekin batera. Renee, gainera, hangoa da, eta gustura asko ibili zen gidari lanetan. 08:00etan abiatu ziren Iparralderantz, eta 11:00etan iritsi ziren hara. Lehenengo Barkoxen

izan ziren, eta bazkaltzera Atharratzera joan ziren. Arratsaldean, Santa Graziko inguru zoragarriak bisitatu zituzten, baita eliza bera ere. Kobak ere bisitatu zituzten, eta etxera bueltatu aurretik autobusean itzuli bat egin zuten, hango mendiak ezagutzeko asmoz. Seguru datorren ikasturte amaieran ere beste txango bat egingo dutela.



BEDOÑABE HERRI ESKOLAKOEN TXANGOAK

Bedoñabe Herri Eskolakoek ondoko argazkiak aspaldi bidali bazizkiguten ere, orain arte ezin izan ditugu Txutxu-mutxuen atalean argitaratu. Eta berandu bada ere, hortxe dituzue Bedoñabekoek ikasturte amaieran egin zituzten bi txangoak. Goiko argazkia 2 eta 5 urte bitartekoek gaztetxoena da. Maiatzaren 27an eta 28an Gorozikako barnetegian izan ziren. Etxetik kanpo egin zituzten lehenengo egunak izateko, haurrak ederki moldatu ziren. Eta beheko argazkiak, berriz, 3 urteko ikasleak dira. Hain zuzen ere, maiatzaren 27an Gasteizko Txiki-Parkean izan ziren, eta horiek ere ederki gozatu zuten.

OSOKO BILKURA/ Eudelen proposamena onartu du udalbatzarrak

Udalak Eudelen proposamena onartu du; hori ikusita, langileek greban segituko dute

UBANE MADERA

Tentsio uneak bizi izan ziren asteleheneko osoko batzarrean. Izan ere, protestan dabiltzan Udaleko langileak batzarrean izan ziren. Hala, udalbatzarrak Eudelek proposatutakoa onartu du langileendako, baina langileek, konforme ez, eta greban segitzea erabaki dute.

Hain justu ere, horixe izan zen zinegotzien arteko desadostasuna piztu zuen puntu nagusia. Kontua da Eudelek CCOO sindikatuarekin udal langileen soldatan %3,2ko igoera adostu duela eta horixe dabilela proposatzen udal guztietan. Arrasaten ere hala egin zuten. Arazoa da, Arrasaten ELA eta LAB sindikatuek dutela gehiengoa eta sindikatu horiek ez dutela negoziazio mahaian parte hartu. Are gehiago, CCOOk ez du ordezkari-tzarik Arrasateko Udalean.

Horren ondorioz, protestan dabiltzan udal langileek ez dute onartu proposamena eta hala azaldu zioten udalbatzarrari. Edozelan ere, igoera onartu egin zuen udalbatzarrak EAJren, EAren, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin. Aralarrek kontra bozkatu zuen eta Ezker Batua abstenitu egin zen. Horren harira, Aralarko Joxe Etxeberriaren esanetan, "bi aldeentzat egiten den akordioa gehiengoarekin egiten da, baina horretarako gehiengo hori negoziazio mahaian eseri egin beharko da". EBko Ander Rodriguezen esanetan, berriz, %3,2ko igoera zuzena den arren, igoera hori erabakitzeko bidea ez da zuzena izan, hala-koetan hitzarmenaren eta negoziazioaren bitartez konpontzen direlako arazoak. Era berean, EBk salatu zuen Eudel ez dela gauza arazo konpontzeko, eta azken urteotan Eudelek geroago eta gehiago



Protestan dabiltzan udal langileak oso haserre atera ziren osoko bilkuren aretotik.

bultzatu duten azpikontratazioa ere salatu zuen.

Bere aldetik, alderdi sozialistaren izenean, Paco Garciak hitzarmena defendatu zuen esanez ELA eta LABek antolatutako lanuzteak botere sindikal handiagoa lortzeko antolatu dituztela eta ez langileen interesak defendatzeko.

Udaleko langileek, berriz, idatzi bat irakurri zuten. Salatu zuen Eudelen eta CCOOen proposamena onartzean, Udalak ukatu egin duela langileen elkarritararako eta negoziatzeko eskubidea, langileek aukeratu ez duten ordezkariarekin sinatu dute eta hitzarmena. Era berean, argi utzi nahi izan dute langileek ez dutela diru gehiago lortu nahi, baizik eta diru hori hobeto bana-

tzea guztien artean, gutxien dutenen alde egiteko.

GREBA AURRERA EGINGO DU

Gauzak horrela, martitzenean batzarra egin zuten langileek. Osoko bilkuraren jarrera salatu zuten eta horrekin batera erabaki zuten aurrera egitea euren protestekin, eurekin negoziazio mahaia eratu artean. Hala, aurreratu digute datozen hilabeteotarako lanuzteen egutegia egingo dutela, baina, oraindik zehaztu barik dituztela egunak. Hori bai, erabaki dute uztailean egun bateko greba egingo dutela; irailan bi eguneko; urrian hirukoa; azaroan lauokoa eta abenduan bost eguneko. Eta arazoa konpontzen ez bada aurrera egingo dutela bide horretatik, hileroko greba egun

berri bat gehituz. Horrekin batera, erabaki dute herritarrei gertatzen denaren informazio zuzena ematea.

Orain artekoari begiratuta, berriz, langileek balorazio positiboa egin dute. Diote euren eskaerak lortu ez arren, langileen artean batasuna lortu dutela eta hori oso garrantzitsua dela euren eskubideak defendatzeko. Era berean, argi utzi nahi izan dute lanuzteak ahalik eta kalte gutxien eragiteko moduan egiten dituztela. Adibidez, Iturbide Egoitzako jarduna ez dute eten nahiz eta lanuzteak egin, badakitelako horrek kalteak eragingo lizkiekeela pertsona nagusiei. Gaineratu digute, nahi izanez gero, bost minutuan konpon daitেকেela Arrasateko Udaleko arazoa, baina ez dagoela borondaterik.

LABUR

Sexologia Bulegoak zerbitzu zabalagoak emango ditu

Udal Sexologia Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuak zabaldu egingo dituzte datozen hilabeteotan. Hala, uda partean Musakolako igerilekuan jende asko ibiltzen dela aprobetxatu, eta haraino eramango dute sexologia zerbitzua. Gainera, uda eta udan izaten diren ohiturekin lotutako zerbitzuak bai landuko dituzte. Horrez gainera, orain arte egin duten moduan, azoka plazan ipintzen segituko dute sexologia zerbitzua, egubakoitzetan. Oro har, helburua da herritarren ahalik eta gehien gerturatzea zerbitzu hori.

Lanarekin lotutako atari berria: 'Bilalan.net'

Lan eskaerak eta eskaintzak euskaraz kudeatzen dituen ataria da *Bilalan.net*. Helburua da euskara lanean bultzatzea, bai enpresei langile euskaldunak bilatzen laguntzen, baita langabeei euskaraz egingo duten lana aurkitzen laguntzen ere. Lan kontratu arruntarekin, bekadun moduan edo praktiketako kontratuarekin lan egin nahi duten pertsonen zuzendutako dago. Enpresei dagokienez, euren enpresan langile euskaldunak behar dituzten enpresei zuzendutako ataria da *Bilalan.net*. Esan beharra dago euskaldunei zuzendutako lan atari bakarria dela. Euskalkidetzaren izeneko kooperatibak bultzatutako ekimenak da, Bizkaiko Foru Aldundia- ren, Eusko Jaurlaritzaren eta zenbait Udalen laguntzarekin, tartean, Arrasateko Udalen laguntzarekin.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

HIRIGINTZA/ Zailtasunak dituztenendako oztupoak

Arrasateko zenbait leku ezinduendako behar den moduan egokitu barik daude

UBANE MADERA

Legeak dio pertsona guztiak berdinak garela eta eskubide berak ditugula. Legeak dio, baita ere, zerbitzu publikoak herritar guztiondako direla, guztiondako berdin. Baina batzuetan hori ez da betetzen. Ezta Arrasaten ere. Eta horrek berdintasun hori apurtzen du.

Orain dela ez asko, Monterrongo azkeneko solairura gindoazela, arrasatear bat ikusi genuen, eskaileretan gora igo ezinda, bere makuluekin. Hitzaldi batera joan nahi zuen, baina nahikoa lan izan zuen haraino iristeko eta zeharo amorratuta eta minduta iritsi zen. Izan ere, legeak hala agindu arren, Monterron moduan, oraindik badira zerbitzu publiko batzuk ez daukela behar bezala egokitu zailtasunak dituztenenako. Zoritxarrez, halakoetan ohi denez, arazoa muturren aurrean ikusi arte, gertatzen denaz konturatu ere ez gara egiten. Hala gertatu zitzaigun guri ere, emakume hura ikusi genuenean. Edozelan ere, benetako arazoa zeukala ikusita, berarekin berbetan izan gara, Arrasateko dituen zailtasunak aztertzen. Bere etxean hartu gintuen Malen Errastik.

MONTERRONGO ZERBITZUAK

"Herri honetan, edo ahalegin handia egiten duzu edo bestela ez dizute uzten nahi adina gauza egiten. Adibidez, nik zerbait antolatzen badut eta gero ezin banaiz hara gora igo?". Monterrongo kasuaren gainean dabil Malen Errasti. Izan ere, Monterron ez dago egokitu zailtasunak dituztenenako. Ez du igogailurik ez eta arrapalarik ere. Horrez gainera, sarrean maila bat dauka. Jakina, horrek askori dezente zailtzen die hango zerbitzuak erabiltzea: liburutegia, bideoteka, ordenagailu gela, berbaldiak egitekoa...

Zoritxarrez, ez da egokitu barik dagoen herriko leku bakarra. Malen Errasti San Andresen bizi da; hortaz, bide dezente luzea egin behar izaten du erdialdera etorri gura duenean: "Erdialdera joaterik badago. Baina, adibidez, zenbait pasabidek, lurraren arrasean egon beharko lirakeenok, koskatxoak dute, eta nahiz eta txikia izan, erruberradun aulkietan goazenok asko igartzen dugu. Horrez gainera, gertatu izan zait paseatzen nindoala zebrabidera iritsi, errepidea zeharkatu eta beste aldean ez egotea igotzeko biderik. Bestalde, Kontzeziñotik Euskadiko Kutxa ingurura joateko, adibidez, errepidetik joan beharra dago, egoitzatik irtenda ez dagoelako beste biderik. Alkateak esan zidan halakoak konpontzea lan erraza dela, baina, begira, egin barik dago. Ospitalera joateko bidea ere ez dago batere ondo. Errepidetik



Osoko bilkuren aretoa berbaldietarako erabili ezin denetik, zailtasunak dituztenek zailago dute, Monterron erabili behar dute-eta.

joan beharra dago, ezinezkoa delako espalaira igotzea. Bai, badira herriko zenbait gune ez direla egokiak. Eta Monterron moduko bestelako zerbitzuak aipatzearen, adibidez, Amaia Udal Antzokian igogailu bat egon beharrean, bes-

te sistema bat ipini dute. Hala, sistema hori erabiltzeko, derrigorrezkoa da arduradunari abisatzea, batetik; eta bestetik, jende guztia begira geratzen zaizu hura erabiltzean, eta lehenagotik berez dezente begiratzen gaituzte gai-

nera gehiago begiratzeko, batez ere, kontuan hartuta Amaian igogailu arrunta ipini daitekeela".

Halako egoeren aurrean, Malen Errasti bereziki haserre dago ez zaiolako ondo iruditzen legeak agintzen duen zerbait bete-

tzeko norbera borrokan ibili beharra: "Ez da nik asmatu dudan zerbait; derrigortuta daude hori hala egiten, eta ez da zuzena erruberradun aulkiarekin kalean ibili ahal izateko borrokan ibili beharra. Gainera, halako oztupoak ez dira bakarrik ezintasunak dituztenenak. Haur-kotxeekin ibiltzen diren gurasoei ere eragiten die; kontuan hartu beharra dago, era berean, pertsonak geroago eta bizimodu luzeagoa dugula, hortaz, gaur egun pertsona nagusi mordoak ikusten da kalean erruberradun gurgiletan... Uste dut kaleak denok lasai ibiltzeko moduan egon beharko lirakeela".

EZ BAKARRIK GUTXITUENDAKO

Hori guztiori salatzeako orduan, Malen Errastik kontuan hartu du ailegarratasunaren gaineko legea 80ko hamarkadan onartu zutela: "Ez dut esaten 20 urteotan ez dela ezer egin, baina niri gurgildun aulkiarekin ibiltzea tokatzen zait eta uste dut egoera oraindik ez dela egokia". Malen Errastiren ustez arazoa da ez dagoela sentsibilitaterik: "Ez dago sentsibilitaterik. Orain dela bost urte idatzi nuen Monterron dela-eta gutun bat. Eta erantzun zidaten hori ez zela lehentasunen artean sartzen".

Gauzak horrela, pertsonen arteko berdintasuna nekez errespetatzen dela uste du Malen Errastik: "Berdintasuna egoteko, traba horiek ezabatu egin beharko lirake zailtasunak dituztenek gainerakoek dituzten aukera berak izateko. Zerbitzu publikoak guztiondako erabilgarriak izan behar dira, bestela, beti egongo gara gainerakoak baino baztertuago".

Herrian egokitu barik dauden zenbait gune



MONTERRON

Monterronera sartzeko maila bat igo behar da; barruan ez du igogailurik eta zerbitzu guztietara iristeko eskailerak daude. Askok ezin dituzte hango zerbitzuak erabili.

Eta nahiz eta kultura etxe berria beste leku batean egin eta ondo egokituta egon, Errastiren galdera da ea Monterronen ipiniko duten zerbitzua ere ezingo duen erabili.



ZENBAIT KALE

Gurgildun aulkian joan behar izanez gero, errepidetik joan beharra dago, espalaira igotzeko dagoen maila oso altua delako.

Bestalde, zenbait lekutan, zebrabidetik ezin da espalaira igo, ez dagoelako igotzeko biderik. Jokin Zaitegin, adibidez, leku batzuetatik ez dago pasatze-ko biderik. Aparkalekuei dagokienez, gutxiegi daude, batez ere erdialdean.



UDALETXEA

Udaletxera sartzeko zabalik egoten diren ate biak oso estuak izateaz gain (batez ere gurgildun aulkiarekin joanez gero), indar handia egin behar da zabaltzeko, eta gainera, maila bana dute. Gauza bera gertatzen da osoko bilkuren aretara sartzeko. Igogailua bertaraino iristen den arren, gero koska bat igo behar da barrura sartzeko.



BESTELAKOAK

Emakume Txokoarekin zailtasunak daude: igogailua duen arren, ia beti matxuratuta egoten da. Eta oro har, zerbitzu publikoak ez daude egokitu ezta itsuendako ezta gorrendako ere.

Eta orain dela gutxi egindako taberna batzuek ez dute betetzen ailegarratasunaren legea; eta hori zaindu egin beharko lukete.

BEHEKODENDATIK

Eguzkiñe Loiti

NECTAR NATUR KOSMETIKA DENDA

XABIER URZELAI

Angiozarkue bada be, aspaldi etorri zan Eguzkiñe Mondrague-
ra bizi izetera. Oin dala urte eta
erdi zabaldu euen dendie
Otalora kalien, eta gustora dabil
lanien. Oin arteko afiziñue
lanbide billakatu dau; gauza
bakarra dauko txarra: agostuen
lan egin biherko dauela.

Ze falta jako Mondragueri?

Uste dot argi dauela, ziniiek.

Eta, ze dauko ona?

Anbiente politte egoten dala.

Ze falta jatzu zeuri?

Oporrak.

Eta, ze dauketzu sobran?

Nerbixuek.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

La vida de Brian / El clan del
oso cavernario / Itoiz.Momentu honetan nora juen-
go zitzake gustora?Lekue ez jat horrenbeste inpor-
ta. Hori bai, trankil egon gureko
neuke.Egitten dozun etxeko lan
gorrotagarrixena.Danok esaten dauena, plantxe-
tie.Tranpan ibilttekotan nor-
baittekin, zeinekin?Tranpan ibilliko banitz, ez neu-
ke izenik esango.Zure lanerako ezinbestekue
dan gauza bat.Jentiek in agradablie izetie.
Nahiz eta egun txarra euki, aurpegi
ona jarri biher dozu.Denbora librien ze egitten
dozu?

Mendire juen.

Kapritxo bat.

Anbotora juetie.

Aste bukaerie pasetako leku
apropos bat.Mendixe bada, edozein lekutan
ondo.Ze leiduko zeuke gustora
ARRASATE PRESSen?Danondako lana dauela, euske-
rie gerueu eta gehixau ibiltten dogu-
le... Notizia onekin betetako aldiz-
karixe irakurriko neuke gustora.

Ze saltzen dozue Nectar-en?



*"Egunero dutxetan
gare, eta horretarako
hobe da jaboia
naturalak ibilli,
suabiauek die-eta"*

Nectar-en gauza asko saltzen
dittugu: jaboia, ulerako tintiek,
baiñurako gelak, aromaterapiako
produktuek, hidratantiek...

**Eta horreik produktuok natu-
ralak dauketzue.**

Bai, bai. Guk saltzen dittugun
produktuek naturalak die, eta oso
emaitza onak emuten daue. Natu-
ralak ez dien jaboia, adibidez, oso
fuertiek die, agresibuek, eta asko-
tan kalte egiten dutzie azalai. Gai-
ñera, egunero dutxetan gare, eta
kaspie eukitten dogu. Azala gehi-
xau zainketako produktu natural
aproposak daukogu hamen. Esan
biher da, baiñe, kaspiek nerbi-
xuengatik be urteten dauela, oso
estresate bizi gare-eta.

*"Aromaterapia ez da
oso ezagune, baiñe
oso emaitza onak
emuten dittu, oso
lasaigarrixe da"*

**Eta, nerbixuen problemie
konponketako ze egin geike?**

Jentiek ez dau askorik ezagu-
ketan, baiñe aromaterapia oso efek-
tibue da. Aroma edo usain klase
batzuk lasaigarrixe die, eta asko
lagunketan daue.

**Saso honetan normalien bai-
ño gehixau zainketan gare; iger-
ten da?**

Bai, eta asko gaiñera. Dana
dala, esango neuke jentie urtien
ziher be asko zainketan dala.

**Erregaluek be preparetan
dozue. Ze rekomendauko zeus-
kit?**

Ikusi egin biherko litzake erre-
galue gazte batendako edo nagusi
batendako dan, diferentie da-eta.

NIREBIDAIAHURA/ Maialen Egues

Grezia / 2004ko otsailetik ekainera arte

Maialen Eguesek ia bost hilabete egin ditu Gre-
zian, eta orain dela egun gutxi itzuli da handik:
"Diseinu grafikoko ikasketak amaitzera joan
nintzen hara, baina egia esan, ez dut askorik
ikasi. Hasieran arazoak baino ez genituen izan. Hilabete
behar izan genuen Atenasen etxebizitza bat alokatzeko,
eta bitartean, Bilboko lagun batzuen etxean izan ginien.
Eta horrez gainera, bost hila-
bete horietatik azkeneko hila-
betean baino ez nituen izan
eskolak, irakasleak greban zeu-
den-eta. Gobernuak irakas-
kuntzarako bideratu behar
zuen dirua Joko Olinpiarrek
antolatzen gastatu du, eta horre-
gatik zeuden greban".

Aurrekari horrekin esan
barik doa lehenengo hilabete-
ak ez zirela oso gozoak izan:
"Oso esperientzia positiboa izan
da, nahiz eta lehenengo hila-
beteek Greziako egonaldia apur
bat ilundu". Eskolarik ez zute-
la ikusita, Maialenek eta lagu-
nek bidaiatzeko aprobetxatu
zuten: "Arrasateko lagun asko
joan ziren Greziara bisitan, eta
norbaik etortzen zen bakoitze-
an Atenasko Akropolis era-
kusten nion. Gutxienez bost
aldiz izan naiz Akropolian, eta
azkenerako aspertu ere egin nintzen".

Maialeni Atenas ez ziztaion askorik gustatu: "Atenas
zarata da, zikinkeria, zirkulazioa, kaosa. Lehenengo hila-
betean arazoak izan nituen arnasa behar den moduan har-
tzeko, poluzio handia dago han. Ezin esan hiriburua asko
gustatu zitzaidanik, baina gainontzean Grezia bisitatze-
ko moduko lekua da, paraje ikusgarriak daude han".

Bi hilabete igaro zirenean egin zuten lehenengo bidaiari:
"Lehenengo bidaiari Santorinira joan ginien sei lagun. Bidaiari
ferryan egin genuen, eta Santoriniko portura iritsi gine-
nerako jendea gure zain zegoen, lo egiteko hotelak eta alo-
katzeko autoak eskaintzen. Santorini uhartean bost egun
egin genituen, uharteko herriak eta hondartzak bisitatzeko.
Sekulako parajeak daude han, eta hondartzak ere oso poli-
tak dira. Ura, gainera, garbi-garbi zegoen".

XABIER URZELAI



"Atenas alde batera utzita, Grezian paraje ederrak daude".

*"Greba zela
eta, azken
hilabetera arte
ez nuen
eskolarik izan"*

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiari kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ELKARRIZKETA

JON MURUAMENDIARAZ/ AURTENGO PREFERENTE MAILAKO PITXITXIA

"Penaz utzi dut Mondra, baina daukadan aukera hau aprobetxatzekoa da"

XABIER URZELAI

Mondran hamabi urtean jokatu eta gero, hirugarren mailan dagoen Beasain taldean jokatu du Jon Muruamendiarez datorren denboraldian. Ez da bakarra, preferentean ibili den beste arrasatear batek ere, Kerman Azkarragak, hirugarren mailan jokatu du-eta: Elgoibarren, hain zuzen.

Zenbaterik galdetu dizute datoren denboraldian non jokatu duzuz?

Lagunek eta futboletik eza gutzen nautenek galdetu didate hori, baina azken unera arte ez dut izan ezer esateko, neuk ere ez nekien-eta non jokatu nuen.

Horrenbeste urte Mondran egin eta gero, penarik bai?

Bai, pena hartu dut bai. Azken hilabeteotan buelta asko eman dizkio buruari, ez neukalako oso argi zer egin. Urte asko egin ditut Mondran, eta lagun asko utzi ditut talde horretan. Ez dut uste inoiz aurkituko dudarik Mondran izan dudana lagun taldea. Gainera, Josu Zubia oso ondo portatu da nirekin, taldea uztea erabaki nuela esan nionetik gaur arte asko lagundu dit-eta. Baina pena ematen badit ere, aprobetxatzeko aukera dela uste dut.

Batek baino gehiagok esan zuen erregionalean egindako golak (37) ez zenituela preferentean egingo (33).

Bai, hori neuk ere entzun

nuen. Baina horri ez nion garrantzi handiegirik eman. Neuk ere ez nekien preferentean zer egingo nuen, eta azkenean gol batzuk egin ditut.

Hirugarren mailan horrenbeste gol egitea zaila izango da.

Bai, hori neuk ere badakit. Aurtengo pitxitxiak 15 gol egin ditu; hortaz, atera kontuak. Argi dago hirugarren mailan ez ditudala horrenbeste gol egingo, eta gainera hori ez da nire ardura handiena. Nire lehenengo helburua hamaikakoan leku bat izatea da.

Aurtengo oporrak aurreko urteotakoak baino laburragoak izan behar dituzu.

Txarragoa, aurtun ez dut oporririk izango. Abuztura arte lan egin behar dut, eta uztailaren 19an hasiko gara aurrendenboraldia egiten. Baina hori da nik aukeratu dudana; hortaz... Egia da, baina, ez duela batere graziarik egiten.

Beasain taldea aukeratu duzu; zergatik?

Gauza asko daude. Alde bateatik, talde ona delako. Orain dela urte gutxi jaitsi ziren bigarren mailatik eta maila horretara itzultzea da euren helburua. Ask

jarraitu dudana taldea da, beste gauza batzuen artean lagun arrasatear batek, Urtzi Amianok, bertan jokatzeko duelako. Gainera, talde gipuzkoarra da eta etxetik hurbil daukat.

Zaila izan da aukera hori egitea?

Ez da oso erraza izan, beste gauza batzuen artean sekula ez dudalako horrelakorik egin behar izan, eta ez nekielako eskaintzen zidatena ondo edo gaizki zegoen. Beasain izan da eskaintza egin didan azken taldea, eta hara joatea erabaki dut. Gainera, pozik nago eskaintzen didatenarekin.

Preferentea eta hirugarren maila: horrenbesteko alde dago?


Batzuek baietz esaten dute, beste batzuek ezetz. Taldeen ardurari handiena ondo defendatzea izaten da, eta golen bat egin badaiteteke, ondo. Jokoa ere azkarragoa da, baina datorren urtean erantzungo dizut hobeto.

Kerman Azkarragak ere UDA utzi eta Elgoibarren jokatu du aurtun.

Bazen ordua! Jokatzeko ikusten nuen bakoitzean ezin nuen ulertu nolatan zegoen preferentean, eta bere kontra jokatzeko nuenean argiago ikusten nuen hori.

Errazagoa izango da atzelari bati baino gehiago aurrelari bati begia botatzea.

Seguruenik bai. Aurrelari baten lana egindako golek adierazten dute, eta atzelariak ez daukate horrelakorik. Ea Elgoibarren zorte ona daukan.



XABIER URZELAI

"Hamaikakoan postu bat eskuratzea da nire ardura handiena. Golek ez naute arduratzen"

'Pitxi' Herrero AGR Eskubaloi Taldeko entrenatzailea hil da

X.U.

Arrasateko eskubaloiak kolpe gogorra jaso du, eguazten goizean hil zen-eta Jesus Mari Herrero, AGR Arrasate Eskubaloi Taldeko entrenatzailea. Ez daude ARRASATE PRESSen nahikoa lerro Arrasateko eskubaloirengatik egin duen lana eskertzeko.

Eguazten goizean hil zen Pitxi Herrero, kantzerrari aurre egiten urtebete ibili eta gero. Bere heriotzarekin Arrasateko eskubaloia umezurtz geratu da, urte askoan ibili da-eta Arrasateko eskubaloien alde lanean. Zaletasun handia zeukan, eta poztu egiten zen esatean Arrasateko eskubaloiak sekulako harrobia

zeukala. Azkeneko urteotan inoiz baino eskubaloi talde gehiago sortu dira, eta Arrasaten kirol gutxi daude eskubaloiak beste gazte dituen. Horren gainean behin baino gehiagotan egin izan dugu berba, gaztetan kirola egiten jarraitzeak daukan garrantziaren gainean, hain zuzen. Eta amorratu egiten zen esatean kirol batzuetan gazte askori taldea uztera derrigortzen zaiela.

Azkeneko urtean Arrasateko talde nagusiaren ardura izan du, eta azkeneko hilabeteotan entrenatzaile lanak egin ez baditu ere, ahal zuen guztia egiten zuen bere jokalariek kantxan ikusteko. Eta nahiz eta lehen botatzen zituen oihuak ez bota, jokalariek igarri egiten zuten Pitxi Iturripen zela. Orain ere ez da urrun ibiliko.



Nahiz eta gaixorik egon, aurtun ere Iturripen ibili da Pitxi (ezkerretik lehena), taldea animatzen.

XABIER URZELAI



ARRASATE PRESS

Igerilekuak astelehenetik domekara arte egongo dira zabalik, 09:30etik 20:30era.

Kanpoko igerilekuak egunero irekiko dituzte, irailaren 12ra arte

XABIER URZELAI

Ekainaren 19an ireki zituzten kanpoko igerilekuak, baina San Juanak izan dira tartean, eta hori igarri egiten da. Oraingo astean, baina, eguraldiak lagunduta, Musakolako kanpoko igerilekuetan jende asko ibili da.

Urtero moduan, aurten ere ekainaren erdialdean ireki dituzte Musakolako kanpoko igerilekuak. Eta datözen hiru hilabete-

otan egunero egongo dira igerilekuak zabalik, irailaren 12ra arte. Igerilekura sartzeko aurten ere hainbat prezio eta abonua izango dira. Kiroldegira sartzeko salneurriari dagokionez, 20 urtetik beherakoek 2,45 euro ordaindu beharko dituzte eta 20 urtetik gorakoek 4,90 euro.

Abonuei dagokionez, gazteendako hamar sarrerako txartelak 18,95 euro balioko du eta nagusiendako, 37,90 euro. Udako abonuei dagokionez, gazteek 27,75 euro ordaindu beharko dituzte eta

nagusiek, 46,50 euro. Eta udako abonua familiarak 72,85 euro balioko du. Horretarako, baina, seme-alabek 20 urte baino gutxiago izan beharko dute.

JOAN DEN UDAN, JENDE ASKO

Joan den udan jende asko ibili zen Musakolako igerilekuetan, eguraldiak asko lagundu zuen-eta. Eta kiroldegiko arduradunek ere gauza bera espero dute aurtengo udarako. Euredako garrantzitsuagoa da, baina, zerbitzu ona arazo barik eskaintzea.

ARETO FUTBOLA

Ariñeketan talde mondragoetarra nagusitu zen Elgetako areto futbol txapelketan

Zapatu arratsaldean jokatu zuten Arrasateko Ariñeketan eta Durangoko Vicios taldeek Elgetako areto futbol txapelketako finala. Bi talde horiek Mekanakis eta Txapela taldeei irabazita sailkatu ziren finalerako. Finalean, berriz, ez zen emozio handirik izan, mondragoetarrek lehenengo zatian hiru gol egin eta ia erabakita utzi zuten-eta partidua (3-0). Bigarren zatian indarrak parekatuago egon ziren, eta talde bakoitzak bi gol egin zituen (5-2).

ARKU TIROKETA

Etxebarri taldekoek erakutsi zuten arku tiroketako txapelketan trebetasun handien

San Juanetan Zaldibarren egin zuten arku tiroketako txapelketan Bilboko Etxebarri taldeak irabazi zuen. Zortzi taldek hartu zuten parte txapelketan. Arrasateko SP-10 taldeak ez zuen zorte handirik izan; seigarren postuarekin konformatu behar izan zuten, ez ziren-eta azken txanparako sailkatu. Tiratzaile onak direla erakutsi zutenak, berriz, Etxebarrikoak izan ziren.

XAKEA

Donostiako Gros taldeak irabazi zuen xake txapelketa; Arrasate bigarrena izan zen

Donostiako Gros taldea izan zen San Juanetako Xake Bizkorreko Txapelketan onena. Donostiarrak EAeko txapeldun izan berri dira, eta Arrasateko taldearen eta Nafarroako talde onenaren, Hoberenaren, kontra jokatu zuten. Hoberenak hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen, Arrasateko xakelariak txapelketa ona egin eta bigarren sailkatu ziren-eta. Josu Tornayk txapelketa horren eta oro har denboraldiaren gainean egin zuen berba GOITBko lankideekin: "Oso denboraldi ona egin dugu, datorren urtean Ohorezko Mailan jokatuko dugu-eta. Horrek esan gura du Euskal Herriko hamar talde onenen artean egongo garela".

SEI HILEBETERAKO UKIPEN-LENTEEN PACKA
MULTILENS GAMA
MULTIOPTICAS

ISN'T
Pepe Jeans
IT ISN'T EVERYTHING
Pepe Jeans
LONDON

MULTIOPTICAS
LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN


Promozio baliagarria 04/07/01etik 04/08/31ra. Qinarriak notario aurrean utzita daude.

SEI HILEBETERAKO UKIPEN-LENTEEN PACKA
MULTILENS GAMA

Pepe Jeans
LONDON

KAMISETA

2 OPARI



Hau guztia berriz: kasa bi, sei hilebeterako Multilens gamaiko lenteak; hiru pote, 360 ml-ko Multilens disoluzioarekin; lenteak eramateko kubila; eta kamiseta bi, Pepe Jeans markakoak (naska eta mus)

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak 8 egun / 7 gau

FINLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK *** /****

MO/ME 1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

NORUEGA IKUSGARRIA

HOTELAK *** /****

ME/HG 1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK

HOTELAK *** /****

ME 1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

FIORDOETAKO INPERIOA

HOTELAK *** /****

MO/HG 1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhague.

BALTIKOKO ERREPUBLIKAK

HOTELAK *** /****

ME/HG 1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

HORIZONTES DE GRANDEZA I

HOTELAK *** /****

HG/ME 1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

ISLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK TUR / 1ª

HG 1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skaftafellssylur, Skogafoss, Hvolsvöllur, Círculo Dorado y Laguna Azul.

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - viajesiberia.com

GIPIZKOAKO BULEGOA

DONOSTIA

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San martin, 6 Tel. 943 42 00 71

ARRASATE

- Kontzezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

BERGARA

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikoitzea eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egu konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifan igoera, tasa bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotela eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; G, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Irteerak
BILBOTIK

ZURE OPORRENGATIK EGIN
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

VIAJES  IBERIA

PRÉZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...



GAITEROS DE ELIEGO & FRIENDS

Gaiteros de Elciego & Friends taldeak folkloreak gain, gaitarienganako aufreiritziak apurtu gura ditu.

MUSIKA/Gaiteros de Elciego & Friends taldea, Arrasateko Gaiteroen 25. urteurrenean

Bihar, zapatua, gaitarien musika eskaintza zabala

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Gaiteroek 25 urte bete dituzte, eta horregatik hainbat ekitaldi egingo dituzte. Bihar, zapatua, Gaiteros de Elciego & Friends taldeak kontzertua egingo du Maisu Arano eta Maala kaleen artean. Uda ostean, ekitaldi gehiago izango dira.

Arrasateko Gaiteroak taldea 25. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil, eta arrazoi horregatik aspaldiko lagun batzuk gonbidatu dituzte bihar, zapatua, kontzertua egin dezaten. Gaiteros de Elciego & Friends taldeak Maisu Aranon, Monte tabernaren ondoan joko du, 20:00etan.

ARABAKO GAITARIEN ERREFERENTZIA

Gaiteros de Elciego taldea orain dela 26 urte sortu zuten Juan txu eta Juan Carlos Gomez anaiek. Bi naia horiek Arabako gaitarien artean erreferentzia bilakatu dira.

Orain dela sei urte, Gomez anaiek eta Gasteizko hainbat musikaririk Latin Gasteiz Band taldea sortu zuten, beste kantu batzuk jotzeko asmoz. Hamalau lagun batu ziren, arrasatear batzuk tartean. Bi urte egin zituzten kontzertuak egiten, baina zaila zen hainbeste jende batzea, eta azkenean jotzeari utzi zitoten.

Orain dela lau urte, beste saiera bat egitea erabaki zuten, eta sei lagun elkartu ziren: Juan Carlos eta Juan txu Gomez gaitariak; Juanma Saez (tronboia); Joseba K. Perez de Heredia (bonbardinoia); Jonko Sanchez (tuba); eta Jon Elozegi (perkusioa). Haize-instrumentuei perkusioa batu zitzaizen. 2000n, Gabon kantuak jotzen hasi ziren, eta poliki-poliki, beste kantu mota batzuk prestatzen hasi ziren.

Talde hori Gaiteros de Elciego & Friends izenarekin bataiatu zuten, eta helburua da gaitarien ohiko doinuetatik urrun dau-

den musika estiloak jorratzea, hori bai, besteak beste, gaita joaz.

GAITARIEN MUGAK APURTU

Taldeko kideen esanetan, ikusleak harrিতuta gelditzen dira, ez dutelako halako kontzerturik espero izaten. Izan ere, haien emanaldietan musika eskaintza oso zabala izaten da: besteak beste bolero, jazz, zarzuela, rantxera, txa-txa-txa, sanba, rock eta beste musika estilo batzuekin ere ausartzen dira.

Are gehiago, gaitaren doinu klasikoak gustuko dituztenak ere harrিতuta gelditzen dira. Izan ere, gaur egun ez dago ia talderik gaitarekin halako kantuak moldatzen dituenik, eta instrumentu horrekin halako estiloetan esperimentatzen duenik. Bestalde, beste talde batzuen bertsioez gain, abesti propioak ere badituzte.

Dagoeneko Euskal Herriko leku askotan izan dira kontzertuak egiten, eta orokorrean oso harrera ona izan dute. Zoritxarrez, denbora faltagatik edo taldea lanbidetzat ez dutelako Kataluniara eta Iparraldera joateko gonbidapen batzuei ezezko erantzuna eman diete. Eta oraindik ez dute diskorik kaleratu.

2003ko Gabonetan Arrasaten izan ziren Gabon kantuak jotzen, eta euredako ohorea da Arrasateko Gaiteroen urteurrenean jotzea, aspalditik harreman handia dute-eta.

Talde horrek boleroak, jazz, zarzuela, sanba, rocka eta beste jotzen ditu

2003ko Gabonetan, talde berberak Gabon kantuak jo zituen Herriko Plazan

KULTURAPILULAK

Gaur, egubakoitza, munduko hiru gitarra jotzaile onenen kontzertua, Musakolan

Gaur, egubakoitza, munduko hiru gitarra jotzaile onenek kontzertua egingo dute Musakolako kiroldegian. Joe Satriani, Steve Vai eta Robert Fripp-en G3 2004 munduko bira Arrasatera helduko da.

Hasiera baten kontzertu hori Bergarako Jam aretoan egin behar zuten, baina sarrera guztiak berehala agortu ziren, eta kontzertua antolatutako duen promotoreak jaialdia leku handiago batera eramatea erabaki du; Arrasateko Musakolako kiroldegira, hain zuzen. 21:00etan hasiko da, eta sarrera 40 euro da. Kontzertuak, gutxienez, hiru ordu eta erdi iraungo du. Aipatutako gitarra jotzaile bakoitzak, bere talde propioarekin, ordu bateko emanaldia egingo du; eta bukaeran, hiru gitarra jotzaileek elkarrekin *jam* bat egingo dute. Satriani eta Vai 1996an hasi ziren beste gitarra jotzaile batzuekin birak egiten, baina honako hau Europara datozen lehenengo aldia da. Espainiako Estatuan hiru kontzertu egingo dituzte: Bartzelonan, Madrilan eta Arrasaten. Joe Satrianik hamaika disko kaleratu ditu eta, besteak beste, Mick Jaggerrekin eta Deep Purple taldearekin jo izan du. Steve Vai zazpi disko ditu, Grammy saria irabazia da eta, besteak beste, Frank Zappa eta David Lee Rothekin jo izan du. Robert Fripp King Crimson taldearen sortzaile da, eta 40 urte daramatza taldeekin birak egiten: Blondie, Talking Heads, David Bowie, Peter Gabriel...

Hainbat dantza ikuskizun izango dira uztailean, Udaleko Kultura Sailaren eskutik

Udaleko Kultura Sailak aditzera eman du uztailean ez dela film emanaldirik egongo, ez Amaia Udal Antzokian ezta Monterronen ere. Horrez gain, aditzera eman du Aukeran dantza taldeak San Juanetan egin behar zuten *Izena duen guztia omen da* ikuskizuma euriak zapuztu zuela. Hala ere, oporren ostean Amaia Udal Antzokian egingo dutela iragarri zuten.

Bestalde, uztailean hainbat dantza ikuskizun egingo dituzte. Batetik, hilaren 21ean, Lore Gazteak taldeak ikasturtea bukatze-ko emanaldia egingo du, 22:00etan. Taldeko txikiak eta nagusiak Euskal Herriko hainbat eskualdetako dantzak egingo dituzte, gaitarien eta txistularien laguntzarekin. Bestetik, hilaren 27an, Poloniako eta Maltako dantza taldeak ekarriko dituzte.



Domekan, Errozioaren erromeria

Etzi, domeka, Al Andalus elkarteak Errozioaren erromeria egingo du. Aurtengoa hamalagarren aldia izango da. 09:00etan, Arrasateko kanpo etorritako elkarteek ongiatorria egingo dute. 10:00etan, prozesioan joango dira Al Andalus elkartetik Santa Teresa elizaraino —San Isidron ez dira sartzen—. Meza errozieroa egingo dute, eta horren ostean, Arruena parkera joango dira. Han, egun osoan jaja izango da: dantzak, kantuak, produktu gastronomikoak... 19:30ean bukatu arte. Erromeria horrek jende asko batzen du Musakolan. //I.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ FANTZINEAK

'Nothing Without', skate-zaleendako ezinbesteko aldizkaria

IKER BARANDIARAN

Patxi Matxin skate jaiarekin batera, *Nothing Without* fantzinearen azkeneko zenbakia kaleratu dute. Betiko moduan, skatearen gaineko elkarrizketak eta erreportajeak eta musika landu dituzte.


Arrasateko skate eta musika-zale talde batek isilean lanean jarraitzen du. Dagoeneko kaleratu dute *Nothing Without*-en azkena. San Juan jaien aurretik egin zuten Patxi Matxin skate jaien aurkeztu zuten.

Kaleratu dituzten azkeneko zenbakiak diseinuz eta itxuraz oso txukunak dira, baita edukiz ere, jakina. Hain gustuko duten kirol horren —skate— gaineko albiste

Geroago eta argazki ikusgarriagoak argitaratzen dituzte Arrasateko fantzine horretan

ugari sartu dituzte, eta inguruko txapelketen eta Arrasateko skate eskolen gaineko erreportajeak egin dituzte. Horrez gain, kirol horretan etorkizun oparoa duen Ibon Diez arrasatearrari elkarrizketa egin diote.

Musikak ere badu garrantzia fantzine horren orrialdeetan:



Fantzinea dagoeneko salgai dago ohiko tabernetan.

Alberto Olmedok Sinergia hardcore taldeari egindako elkarrizketa zabala; Münsterland-en agu-

rra eta Suicidal Tendencies taldearen kontzertuaren kronikak; diskoen kritikak, eta abar.

GUREGAIK/ EUROPLAN MERKE BIDAIATU

European merke bidaiatzeko hainbat aholku eta helbide, eskura

I.B.

Martitzenean, uztailaren 6an, Inter Railaren eta European merke eta norberaren kontu bidaiatzearen gaineko berbal-dia egingo dute Monterronen. 19:00etan izango da, Gazte Sailaren eskutik.

Orain dela urtebete pasatxo, EHUn eta Deustuko Unibertsitatean ikasten zuten hainbat lagunek bat egin zuten. Euren esperientziak batuta, European norberaren kontu eta merke bidaiatzeko gida bat egitea erabaki zuten.

25 bat lagun elkartu ziren, eta guztiek European Inter Rail bidez hainbat bidaiak eginak zituzten.

Bakoitzaren esperientziak kontuan hartuta, mila orrialde inguru dituen liburu osatua idatzi zuten. Are gehiago, Erasmus-en bitartez ezagututako beste ikasle batzuen laguntza ere izan zuten.

Liburuaren egileek, bidaiatzen hasi zirenean, halako gida baten premia ikusten zuten; eta

helburu horrekin argitaratu dute, inolako argitaletxe barik, gura zutena argitaratu ahal izateko.

Gida horren koordinatzaile Alvaro Muñozek azpimarratu du liburu hori aproposa dela norberaren kontu bidaiatu, diru gutxi gastatu eta opor egunak luzatu gura dituen edozeinendako. Posi-

ble da trenez merke bidaiatzea, baita autoz edo beste garraio batzuen bidez ere. Horretarako, ez da gaztea izan behar. Gero eta heldu gehiago animatzen dira bitartekari eta erreserba barik euren kontu bidaiatzen.

KALITATEZKO ZERBITZU MERKEENAK

Mila orrialde inguruko liburugida hori 24,95 eurotan saltzen dute, baina egileen esanetan, oso azkar aurrezten da diru hori liburu horrekin bidaiatuz gero. Kalitatezko zerbitzua ematen duten lo-leku merkeak proposatzen dituzte. Esaterako, Parisen, erdi-erdian, leku duin batean lo egiteko aukera, 25 eurorengatik. Hilabete osoa 600 euroko aurrekontuarekin egiten dute.

Gida horrekin bidaiatuz gero, gidak balio duena berehala aurrezten dela diote

Norberaren kontu bidaiatu, diru gutxi gastatu eta opor egunak luzatzeko aholkuak

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak


Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



ARTXIBOA

Arrasateko erretiratuek hainbat bidaia eta txango egiten dituzte urtean.

Urte osoan bidaiatzeko aukerak, erretiratuendako

IKER BARANDIARAN

Ezagun da erretiratu askok goi-denboraldian bidaiatu eta oporretan joan beharrean, lasaiagoak eta merkeagoak diren beste sasoi batzuk aprobetxatzen dituztela. Beste askok ere hori egingo lukete, aukerarik izango balute. Hala ere, ez dira etxean geldituko.

Erretiratuek oporrak hartzeko orduan badituzte abantaila batzuk. Ez guztiek, baina bai askok, udara arte itxaron barik, gura duten sasoi oporretan joateko aukera izaten dute. Hortaz, leku turistikoetan jende gutxiago dabilen sasoiak aukera ditzakete. Modu horretan, jende masifikaziorik egongo ez denez, zerbitzu hobeak eskura ditzakete, eta salneurriak merkeagoak izango dira.

Horrez gain, urtean birritan Imersok Termalismo programak antolatzen ditu, eta erretiratuek horietako bietako baten izena emateko aukera izaten dute. Bainuetxe baten egonaldia egiteko aukera merke eta interesgarria da. Inoiz joan direnek errepikatu egiten dute.

Halako sasoietan bidaiatzeko ohitura handia duten arren, erretiratuen elkarteekin ere hainbat txango eta bidaia egin ohi dituzte. Arrasatearren kasuan, elkarre gehienek hilean txango bana egiten dute, eta urtean bizpahiru bidaia. Txangoak egun bakarreko irteerak izaten dira: Errioxara, Nafarroara, Bizkaira...

Uztailerako eta irailerako, Toki Argik eta Abaroak txangoak eta bidaiak dituzte

Erretiratu askok behe-denboraldietan merkeago eta lasaiago bidaiatzen dute

Bidaiak, berriz, astebeteko edo hamabost eguneko egonaldiak izaten dira. Halako lekuetara joan ohi dira: Benidormera, Italiara, Saloura, Valentziara... Zer esanik ez bidaia eta txango gehienetan bi autobus bete ohi dituztela.

IRAILERAKO, BI PROPOSAMEN

Egunotan, Toki Argi elkarteak Hondarribiara txangoa prestatu du. Uztailaren 18an egingo dute, joan eta etorri. Hondartzara joango dira, eta horren ostean, Beran bazkalduko dute.

Horrez gain, Toki Argiko erretiratuek iraileko bigarren hamabostaldian Valentziara joan gura dute. Astebeteko egonaldia egingo dute.

Abaroa elkartearen ere ez dira geldi egoten diren horietakoak. Uztailaren 23an Bizkaiko kostalderra joko dute. Bermeon Arrantzalearen Museoa bisitatuko dute, eta horren ostean Lekeiton egingo dute bazkaria. Horrekin batera, irailaren 12tik 19ra Portonovora (Galizia) joateko asmoa dute.

Esan beharra dago beste elkarte batzuetako lagunek ere bidaia eta txango horietan izena eman dezaketela, baldin eta bazkideak direnek joan gura ez badute.

LABUR

Udalak lehiaketara atera du Toki Argi elkarteko ile apaindegi zerbitzua

Udalak lehiaketa publikora atera du Toki Argi erretiratuen elkarteko ile apaindegi zerbitzua. Urtebeterako ustiaketa izango da eta, urtean behin, bost urtera arte berritu ahal izango da. Ile apaindegiak urteko lanegun guztietan egin beharko du lan, astelehenean egubakoitzera, goizez eta arratsaldean; eta zapatuetan, goizez bakarrik.

Santa Marinako jaietan ere auzoko zaharrenek izango dute protagonismoa


Uztailaren 16tik 18ra bitartean, Santa Marina auzoan jaiak ospatuko dituzte. Urtero moduan, auzoko alkatetzak jai egitaraua egin du, eta egun horietan hainbat ekitaldi izango dira.

Jaiak auzotar guztiendako egiten dituzte, eta umeez eta gazteek jaiak ospatzen dituzten neurrian, antolatzaileen asmoa da erretiratuek eta auzoko zaharrenek ere hala egitea. Horretarako, Toki Argi erretiratuen elkartearen bitartez, urtero bazkaria egiten dute. Aurten, uztailaren 17an, zapatua, izango da, Mesedeetako Amak eskolan duten aretoan. Interesatuak Toki Argi elkartera jo beharko dute izena ematera, lehenbailehen. Bazkari ederra emango diete, eta gainera, omenalditxoak egingo diete.

Larruazala zelan zaindu azalduko dute Toki Argi elkartearen egingo duten berbaldian

Aulas Kutxa fundazioak berbaldia egingo du Toki Argi elkartearen. Berbaldi horrek ekainaren 29an izan behar zuen, baina eza gutzen ez ditugun arrazoiengatik, martitzenean, uztailaren 6an, egingo dute. 17:00etan izango da.

Jazmina Nuñez osasunean adituak larruazala zelan zaindu azalduko du. Helburua da azala behar den moduan ez zaintzeagatik sor daitezkeen arazoei aurre hartzea. Besteak beste, larruazala ondo hidratatuta izateak duen garrantzia eta eguzkitan desegoki edukitzeagatik sor daitezkeen arazoak azpimarratuko ditu.



80 urtetik gorakoei omenaldia

San Juan egunean, urtero moduan, Udalak 80 urtetik gorako arrasatearrak omendu zituen. Guztira, 150 lagun batu ziren Abaroan, oparitxoak jasotzeko eta luntxa dastatzeko. Ohikoa den moduan, alkateak eta hainbat zinegotzik omenaldian esku hartu zuten.

96 urteko Brigida Monjeri eta 94 urteko Alejandro Martinezi, Abaroako luntxera joandako lagun nagusienei, aipamen berezia egin zieten. Monjeri lore sorta eta oparitxoak eman zituzten, eta Martinezi, txapela eta oparitxoak. //B.

EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Zein auzotan dago irudiotan ikusten duzuen iturri hori?
Arrastoa: orain dela gutxi ARRASATE PRESSko 'Txistuak' atalean argitaratu genuen.

Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Evax Ultra konpresa
Poltsa

2,36€ 393 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELI GARAIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Eli!
Galderen erantzun zuzena:
Zarugalde kalean.

ARRASATEKOHISTORIA

Joan den mendearen erdialdeko aldaketak (III)

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Joan den astean, industrializazioak Arrasatera ekarri zituen aldaketen gainean berba egin genuen. Horren harira, herrian eraiki ziren etxebizitzak izan genituen berbagai; denbora laburrean herrian ugaldu zen biztanleriari irtenbidea emateko eraiki zituzten etxeak, alegia. Azkenaldian moduan, oraingoan ere Josemari Velez de Mendizabalen liburua izango dugu lagun gai horren gainean berba egiteko.

"Estatistikek diotenez, Arrasateko etxebizitzaren kontzentrazioa 42 indizekoa zen 1950ean, hau da, kilometro karratu bakoitzeko 42 etxebizitza ziren. 1981ean, berriz, 199 zen indizea, hau da, 4,7 bider gehiago, ia-ia Gipuzkoak izan zuen hazkunde bera. Aipatutako merkatal bideko beste zenbait hiriren kasuak aipatzearen, Eskoriatza 22 bider hazi zen, Aretxabaleta 10 eta Bergara 1,8, baina horietako inor ez da 50 etxebizitza kilometro karratukotik igaror. Populazioaren hazkundeak zerbitzuen eskasia azaleratu zuen. Noski, Arrasateko etxeak behar zituen, lehenbailehen. Eta etxeek ura, argia, estolderia, parkeak eta abar luze bat behar zuten... bai-



'NIRE HAURTZAROKO ARRASATE' LIBURUA

Zerbitzu berri asko egin behar izan zituzten joan den mendearen erdi inguruan; argazkian, urak ekarri zituztenekoa (1956).

ta lehenbailehen ere. Etxeak eraiki ziren, egun batetik bestera. San Andres, Urizarri, San Antolin... giza kontzentrazio berriak genituen. Bost axola zuen kalitateak, garrantzitsuena kantitatea zena. Hirigintzaren kontzeptuari zor zaion begirunerik ezak egun-

"Auzoetatik osteratxo bat egitea nahikoa dugu etxe pilaketa neurrigabeaz ohartzeko"

doko arazoak sortu zituen auzo berrietan eta ez zuen lehengoetara aurrerakuntzarik ekarri. Norbaitek hitz egin du arrasatearren berezko izaera zakarrak. Bali-teke horrela izatea. Eta, agian, estilo horren arrazoirik zuzen-tako bat hirigintzan bilatu behar-

ko litzateke. Arrasatekoa hirigintza faltsua izan da, irabazietan oinarritutakoa (...)

Udalak "kanpotik" zetorkionaren gainean eratu behar zuen bere kudeaketa; eta Udalari zerbitzu eskaintzen zionak... exijitu egiten zuten. Ezagutzen dut etxegintzako enpresa bat -anekdota bertako zuzendariak esana dakit- Udalari ur iturburu bat "utzi" ziona, baimenduriko baino hiru solairu gehiago jasotzearen truke. Eta gure auzoetatik osteratxo bat egitea nahikoa dugu etxe pilaketa neurrigabeaz ohartzeko. Hirigintza-planifikaziorik ezak biztanleen estresa sorrarazten du. Beharbada zuzen dabilta arrasatearrok zakar samarrak garela diotenak.

Norbaitek esan lezake berrogei urte beranduago estuasun bereberean jarraitzen dugula eta gure herriaren diseinua apropos gaizki eginez gero ere ez litzatekeela hain txarra izango. Seguru aski ez zaio motiborik faltako halako baieztapenaren egileari. Baina, geroke agintarien deskarguan, orduko presazko erabaki ero eta, zenbait kasutan, espekulatuzaileek baldintzatu zuten, hein handi batez, geroke hirigintza-garapena. Lehengo interpellatuzaileak gaur eguneko espekulazioaz ere hitz egin lezake...luze".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko uztailaren 2a / 115. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Ekainari dagokion osoko batzarra egin dute astean

UBANE MADERA

Eguaztenean beharrez, martitzenean egin zuten ekainari dagokion osoko batzarra. Landutako gaien artean, besteak beste, bi mozio aztertu zituen udalbatzarrek.

Luze joan zen martitzeneko osoko batzarra. Bereziki, gai sakonak aztertu zituztelako. Batzuk aipatzearen, udal zerbitzuen esleipena, Etxaguengo ur arazoak eta mozio bi aipatu daitezke.

UDAL ZERBITZUEN ESLEIPENA

Hala, lehenengo puntuari dagokionez, orain arte Anboto enpresak bete izan dituen udal zerbitzuak (hamar zerbitzu: kultura etxearen garbiketa, ur eta argindar kontagailuen irakurketa...) esleitu behar ditu Udalak lehenbailehen; baina, martitzenean ez zuen halakorik egin, egoera hobeto aztertu behar dutelako. Martitzeneko batzarrean jakinarazi zuten lau enpresak aurkeztu dituztela eskaintzak. Baina, enpresa horietako baten eskaintza onartuz gero ere, hiru udal zerbitzu esleitu barik geratuko lirarteke: udal parke, lorategi eta hilerrien mantenua; kale publikoak garbitzea eta bestelako lanak (jaietako garbiketak, esaterako) eta udal ur sarea eta saneamendua zaintzea eta mantentzea. Edozelan ere, jaietara begira, alkateak adierazi digu kaleak garbitzeko zerbitzua aparte kontratatuko dutela.

ETXAGUEN AUZOKO ARAZOA

Bestalde, Etxagueni dagokionez, 80ko hamarkadatik hona datorren arazo bat konpontzeko asmoarekin akordioa adostu zuten zinegotziek. Kontua da orain arte etxaguendarrak bere kabuz ibili direla ur, saneamendu eta garbiketa kontuetan. Orain, berriz, badirudi egoera konpontzeko asmoa dutela. Udalaren asmoa da ur, saneamendu eta garbiketa kontuak behar den moduan arautzea. Hala, martitzenean lortu zuten akordioa auzotarrei bidaliko diete, ea haiek onartzen duten.

HAMALAUREN ETA EAJREN MOZIOAK

Bukatzeko, udalbatzarrek bi mozio eztabaidatu zituen. hAMAlauk aurkeztu zuen bat. Besteak beste,



Osoko batzar luzea egin zuten udalbatzarrek martitzenean.

*Udalbatzarrek
oraindik ez du
erabaki zein enpresa
arduratuko den
udal zerbitzuekin*

apartheid politikoa salatu zuten: "Eskubide zibil eta politikoak desagertu arazi eta apartheid gordina ezarri zenetik urte bat beteko den honetan badira batzuk udaletan demokraziaren berrezartzearen 25. urteurrena lotsarik gabe ospatzen dutenak". Hala, lau puntutan honakoa onartzeko eskatu zuten: salatzea "eskubide politikoak urratzeko egindako saiakera"; Udalak ez onartzea "herritarren hitzaren eta borondatearen gainetik dagoen legalitaterik" eta hAMAlau mintzakide politiko moduan onartzea eta plataforma horrek lortutako emaitzak errespetatzea. Baina, mozioa ez zuten onartu. Bai,

*80ko hamarkadatik
hona datorren
Etxaguengo ur eta
bestelako arazoa
konpontzeko bidean*

ordea, EAJk aurkeztutakoa. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa onartu zuten. Hala, Udalak eta udalbatzarrek sistema demokratikoaren sostengu direla aitortu ostean, zera onartu zuten, besteak beste: gizakien eskubideak errespetatu eta defendatzea oinarritzeko dela; ezin direla justifikatu hilketa eta indarkeria ekimenak (ez ETArenek ezta torturak eta halakoak); ideia aniztasuna defendatu beharra dagoela eta errespetatu egin behar dela baldintza berdintasunean aukera politikoaren ordezkariak askea.



Ludoteka itxita izango da, irailera arte

San Martin jaiak iristearrekin batera, Aramaioko ludoteka itxi egingo dute. Ludotekako arduradun Ana Muñoak jakinarazi digunez, gainera, ludoteka itxita egongo da irailera arte, izan ere uztailean udalekuetan ibiltzen dira neska-mutikoak eta ez dute ludotekaren beharrik izaten. Bestalde, gogoratu beharra dago jaietan liburutegia ere itxita izango dela. /U.M.



Urte emankorraren eskean

Joan den asteko San Juan eguneko argazkia duzue irudiotakoa. Hain zuzen ere, Azkoaga auzoan ateratakoa. Usadioari jarraituz, besteak beste, bezperako San Juan sutara bota zuten iaz San Juan egunean bedeinkatutako lore sorta eta ortuko belarrak, urte emankorraren esperoan. Eta San Juan egunean, meza egin zuten eta datorren urterako lore sorta bedeinkatu zuten. /U.M.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BI ARAMAIOAR TXAPELDUN

Barea elkarteko Ekain Eriz eta Mikel Balantzategi pilotariak txapela eskuratu zuten joan zen zapatuan. Gasteizen jokatu zuten Santa Luzia Txapelketan lortu zuten garaipena. Bestalde, Donostian aurkeztu berri duten Euskal Herriko Pilota Konfederazioko Arabako ordezkaria Aitor Axpe izango dela jakinarazi digu Barea elkarreak.

AUTOBUS ZERBITZUA

Jaiak direla eta, gaur, barikua, arratsaldean hasita eta astelehenean egun osoan, autobusa ez da herri barrura sartuko, eta saihesbidean izango du geltokia; Iturroste gainean, hain zuzen ere.

OSASUN ETXEA

Jaiak ere eragina dute osasun etxearen zerbitzuetan. Hala, datorren astelehenean, uztailaren 5ean, itxita egongo da egun osoan. Egundorretan mediku edo erizain zerbitzuaren beharra izanez gero, 17:00ak arte Arrasateko anbulatoriora joan beharko da; eta ordu horretatik aurrera, ospitaleko larrialdi zerbitzuetara joan beharko da.

Kontsumitzaileen eskubideak ezagutarazteko Kontsumo Busa Aramaion izan da

UBANE MADERA

Oraingo asteko martitzenean, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Busa Aramaion izan da, plazan. Kontsumitzailearendako interesekoak izan daitezkeen heziketa eta informazioa ematea izan da helburua.

Herriz herri dabil egunotan Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Busa. Jaurlaritzaren asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko 40 udalerritar iristea. Hala, oraingo astean, Aramaiori tokatu zaio.

Lehen esandako moduan, autobus berezi horren helburua da kontsumitzaileen intereseko informazioa eta heziketa ematea. Hala, interesa duten herritarrek kontsumitzaile moduan dituzten eskubideak eta eskubide horien alde lanean dabilzan instituzioak ezagutzeko aukera izan zuten martitzenean.

Halakoetan ohi denez, autobusak azpiegitura bereziak izaten ditu, besteak beste, Internetara konektatutako ordenagailuak. Horren ondorioz, batez ere Aramaioko gaztetxoak ibili



Goizean goizetik iluntzera arte egon zen Kontsumo Busa Bizente Goikoetxea plazan.

ziren autobusean gora eta behera. Era berean, goizean, besteak beste udal ordezkariak bisitatu zuten. Jakinarazi digutenez, bes-

tela, ez zen herritar larregi sartu Kontsumo Busera.

Edozelan ere, ikusteko gogoz geratu denak badu oraindik ere

aukera, izan ere, Kontsumo Busak uztailaren 30ean bukatuko du egiten dabilen ibilbide berezia.

BOTEPRONTOAN/ Martin Etxabe · Matxaingo auzo alkatea

“Auzotarrok nahi duguna da dagoen bidea zabalago egitea, besteak beste, kamioiak sartu ahal izateko”

Ibarratik larregi aldendu barik egin dugu oraingo asteko elkarrizketa. Izan ere, Matxain auzora jo dugu. Martin Etxabe da auzo horretako alkate, eta oso argi zuten zer kontatu nahi zuten elkarrizketarako tarte honetan; auzoan ibilbidea egin dugu bera-ekin, hobeto ulertzeko:

Orduan, hasteko auzoko arazoak kontatuko dizkiguzu...

Bai. Hasteko orma kontuak aipatuko ditugu. Kontua da hemen gasa sartu zutenean, kale hasierako orma hau jausi egin zela. Ikusten duzun moduan, hori mendia zen, landa-lursaila zen. Eta sasoi hartan, metro karratua 1.000 pezeta pagatu zioten jabeari orma egiteko.

Eta zuek ez zaudete horrekin konforme?

Itxaron. Kontua da errepidearen beste aldeko lursail horiek urbanizatzeko lursail moduan daudela izendatuta. Hemen etxeak egitea zuten pentsatuta. Baina, orain dela gutxi atera duten lege batek dio errekatik bost metrora ezin dela ezer eraiki. Hortaz, dagoeneko lursail horietan ezin dute ezer eraiki, baina, lur-jabeek zergak urbanizatzeko lurak balira moduan daude ordaintzen.



“Akordioa lortu ezean, lursailak desjabetzeko mehatxua eta guzti egin zuten”

Eta zein da arazoa?

Lehen ormarekin jarraituz, auzotarrok nahi duguna da dagoen bidea zabalago egitea, besteak beste, kamioiak barruraino sartu ahal izateko. Eta hori lortzeko, asmoa zen beheko zelai horietako zatiak erabiltzea pareta zaharra bota eta bidea zabaldu eta gero, pareta berria egiteko. Are gehiago, alkatearekin hitzarmen bat lortu zen eta Udalak erabaki zuten dirulaguntza eskatu behar zuela lan hori egiteko. Eskatu zuten, iritsi ere iritsi zen, eta urtebetean hemen egon zen dirua. Baina, lursailen jabeekin negoziatzeko orduan, haiei metroko bi euro eskaini zieten. Pentsa, urbanizatzeko lursaila bi euroan! Eta gainera, beste lurjabeak 1.000 pezeta ordaindu diotenean...Jakina, ez zen akordiorik lortu eta dirua

buelatu egin behar izan zuten. Gainera, Udalak esan zuen auzoan borondatea falta zela. Baina, gertatutakoa ikusita, non dago Udalaren borondatea? Bati 1.000 pezeta ordaindu eta besteari bi euro agindu? Gainera, akordioa lortu ezean, lursailak desjabetzeko mehatxua eta guzti egin zuten. Non dago Udalaren borondatea? Gainera, esan beharra daukat auzoko zenbait konturen gaineko informazioa aldizkariaren bitartez jakin izan dugula, eta hori gaizki pentsatzen zait. Hori horrela bada, auzo alkateak soberan gaude.

Eta orain, zer?

Alkatearekin behin egon naiz eta nik uste dut eurek egin nahi dutena dela auzoan egin nahi dituzten etxe berrien lanak aprobetxatu eta enpresa eraikitzaileari agindu bidea zabaltea.

Bestalde, auzoko zubiarekin ere arazoak zenituzten, ezta?

Bai. Oztopoak ditu eta ur handiak datozenean uholdeak sortzen dira. Asmoa zen bidea zabaltzearekin batera zubi berria ere egitea.

Zerbait gehiago falta zaizue? Ametzuko arekak eta Salazan baserriko uren irteera falta zaigu egiteko.

“Auzoko kontuen berri aldizkariaren bitartez izatea gaizki pentsatzen zait”

ERRETRATUZAHARRA

Mondra futbol taldea Debako futbol zelaian

Futbol kontuekin segituz, Mondra taldearen beste argazki bat argitaratuko dugu antzinako argazkien tartean.

Oraingo honetan, Deban jokatu zuen Arrasateko taldeak eta hantxe atera zioten argazkia. Ikusten duzue-nez, 1943ko urtarrilaren 17koa da.

Honako hauek osatzen zuten sasoi hartako Mondra futbol taldea; goian, ezkerretik hasita: Eugenio Baltzategi, Benito Etxebarria atezaina, Jose Errasti, Manolo Amozarrain, Pedro Sologastioa eta Castor Uribe. Eta behean, ezkerretik eskumara honako hauek daude: Benjamin Pereira, Ramon Heriz, Carlos Mercader Txantxote, Jesus Azkargorta Monti, Jose Mari Aranburu eta Ramon Aranbarri.

Argazkian agertzen direnen artean, guri, behintzat, botikindunak, Pereirak, atentzioa eman digu. Gure berriemaileak kontatu digu zela sasoi hartan futbol taldeetan ez zen medikurik ezta antzekorik izaten, eta taldeko batek izaten zuela botikinarenean ardura.



Gauza gutxi izaten omen zen botikin hartan: partxeren bat, bendaren bat... Osaketa txikiak egiteko beste, ez gehiago. Eta, jakina, botikinduna ez zen medikua izaten. Denetarik egiten omen zuen hark: botak garbitu, futbol zelaia markatu (orduan karearekin egiten zuten hori)...Hori bai, partidu

guztietan hantxe egoten zen fin-fin, edozertarako gertu.

Bestelako instalazio edo zerbitzuen gainean ere berba egin digu gure berriemailearekin; dutxen gainean, esaterako. Kontatu digu hasieran ez zutela dutxarrik, errekan dutxatu behar izaten zutela, eta sekulako lorpena izan

zela dutxa ipintzea. Kontatu digu, era berean, Elgoibarren, esaterako, aldagelak korta baten ondoan zeudela.

Argazkia: Centro de Accion Catolicako bilduma.
Informazioa: Eugenio Baltzategi.
Urtea: 1943.

NOLAALDATUBIRENGAUZAK

Zaldibar, 1985eko udazkenean

Urtaro ezberdinetan ateratako argazkiak izateaz gain, ia 20 urteko aldea dago ezkerreko eta eskuineko argazkien artean. Urte horietan guztietan, baina, Arrasateko txoko horren erabilerak ez du behera egin, eguraldiak laguntzen duenean gaztetxo mordoia ibiltzen da-eta kulunketan jolasten. Bistakoa da oraingo kulunkak ez direla lehengoan modukoak.



≈ 1985 Ezin esan daiteke orain dela 20 urte Zaldibarko ingurua ondo zainduta zegoenik. Eta, bestela, ikusi zorua zelan zegoen.



2004 Pilotalekua da Zaldibarren aldatu ez den gauza bakarra. Hori bai, lehen jende gehiago ibiliko zen pilotan.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



BERRIA

Volkswagen Caddy



Volkswagen Kombi



Volkswagen LT



Aire-poltsa



Hagunak (lantalak)



Irrati bidezko nabigazio sistema



ESP



Ibilgailu Komertzialak



UDALAITZ S.L.

Gipuzkoa etorbidea 36 • 20500 • ARRASATE
Tel: 943 71 18 70 Faxe: 943 71 18 71



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.

Gertuogotik begira egiazu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobe izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean
Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan

Astra gamma: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

San Andres 10 D. Tel.: 943 77 30 10. **ARRASATE**

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko uztailaren 2a / 71. zenbakiaren gehigarri berezia



SAN MARTIÑAK 04



ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Aramaioko Udalbatzak San Martin jai
zoriontsuak opa dizkizue aramaiar guztioi.

Bixente Goikoetxea enparantza, z/g • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16



ALKATEARENAGURRA/ Mertxe Mondragon

Eguneroko bizitzan geldiune bat egiteko momentua iritsi zaigu, geldiune alaia eta jai kutsua duena. Herriko jaiak, aramaioarrok kalera irten eta elkartzeko aukera ematen digute, gainera. Beharbada ez da balantzeak edo gogoeta sakonak egiteko garai aproposa, ezta udal lanen edo udal ekintzen hitz egiteko ere. Hala ere, pare bat aspektutan egingo dut parada. Batetik, laster jasoko duzuen euskararen erabilerari buruzko datu batzuk direla-eta, gure herriaren sarreran dugun *Aramaion euskaraz bizi gara* mezua gogora ekarri nahi dizuet, jaiak egokiak baitira euskaraz komunikatzeko, abesteko eta azken finean ondo pasatzeko. Bestetik, jaien atarian herria obraz beteta dugula ohartuta, (udaletxeak, babes ofizialekoak Pedro Inazio Barrutian...) horientatik kaltetuak direnei barkamenak eskatu nahi diet.

Azkenik eskerrak eman nahi diet aurtengo jaiak antolatzen ibili den Gazte Asanbladari eta gogoan ditut jai hauek herrian egongo ez direnak. Besterik gabe, herritar guztiak, poz eta alaitasunez, jaiak gozatzera animatzen ditut.

ARAMAIXOKO JAIK 2004
San Martinek. Uztaillak 2,3,4 ta 5

BARIKUE 2 23:00 / txosnan

- JODETE
- DESPREZIO
- ATAKA
- SMOKING-BABYES

ZAPATUE 3 22:00 / plazan

- ERASO!
- ANGER
- FJORD

DOMEKA 4 22:00 / plazan

- MARIACHI
- GUADALUPANO



KONTZERTUEK

Jaien kartel iragarlea

Hona hemen San Martin jaietako kartel iragarlea. Xabier Igoa izan da egilea. Hain zuzen ere, gazte taldeak lehiketa antolatu zuen jaietako kartela egiteko. Aurkeztutako proposamenen artean, hiru aukeratu zituzten. Hala, esandako moduan, Xabier Igoak irabazi du aurreneko saria; Julen del Campok eskuratu du bigarrena eta Eukene Ugarte hiruugarrena. Herriko jaietan emango dizkiete sariak.

JAI BATZORDEA Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada



Gazte asanblada sortu (birsortu) berriak antolatu ditu aurtengo herriko jaiak. Ez dugu esaldi indartsuagorik aurkitu testua hasteko. Duela hilabete batzuk, asanblada sortu eta berehala, jaiak antolatzearen kontua iritsi zen gure belarrietara. Lanean hasteko gogoia eta indarra zegoen, bakoitzak bere konpromisoa hartu eta bere ardurak aurrera eramatekoa. Nahiz eta hau ez den ehuneko ehunetan bete (horrelako kontuetan ezin dugu dena ondo ateratzea espero) egitarau zabal eta oso bat jarri dugu abian, herriko sektore guztiak asetzeko asmoarekin. Ez dakigu lortuko dugun, saiatu behintzat saiatu gara, eta gauzak pentsatu bezala ateratzea soilik falta zaigu orain. Ondorenean jendeak nahi duena esan dezala, baina jakin kritika guztiak onartzen direla, bai txarrak, bai (batez ere) onak.

Idatzi honen bidez jaietan ere inguratzen gaituenarekin ahazten ez garela adierazi nahi dugu: euskal preso politikoen egoera jasangaitza, LHTren eraikuntza eta orokorrean Euskal Herriari eta bereziki gure inguruari eragiten dioten arazoak salatu nahi ditugu.

Ondo pasa jaietan Aramaixo tropikalean!


SAIO BEREZIA

SAN MARTIN JAIK 2004 GOITBn

Martitzenean, uztaillaren 6an 20:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



EGITARAU

JAIXETAKO EGITARAU

Barikue, 2

19:00 Pregoien irakurketa, etxafleruen jaurtiketa ta jaixen hasiera ofiziala.
 19:30 Bi aukera: edo plazan hasten dan trikibertsopoteuen parte hartu, edo plazan hasten dan Pirata kalejirakin gure herri tropikala abordau.
 23:00 Kontzertu mundialak txosnetan: JODETE, DESPREZIO, ATAKA eta SMOKING-BABYES.
 23:30 EGAN plazan.

Zapatue, 3

12:30 ELVI sabeliztuna. Plazan, egune umorez hasteko.
 17:00 Tiroplatue Kurtzetan.
 18:00 Txirritolinpiadak.
 19:30 Sagardau poteue plazan, Txarliren trikitiangeruekin.
 22:00 Aramaixoko umien antzerkixe eta Papargorri ume abesbatzaren emanaldixe kultura etxien.
 22:00 Kontzertuek plazan: ERASO, ANGER eta FJORD.
 23:00 Erromeixie GAU-ALAI taldiakin.

Domekie, 4

12:00 Meza santue.
 13:00 Herriko dantzari eta trikitalarien saioa.
 16:00 Jolasparkie eta mangerazue.
 Arratsaldien ziher Biznietos de Celedon



TRIKITILARIEK GIROA ALAITUKO DUTE



URTEROKO MANGERAZUE EGONGO DA



ARRASATE MUSIKALEK SAIOA EGONGO DU



ARRANTZA TXAPELKETA ERE IZANGO DA

txarangie.
 18:30 Herri kirolak: barrenadoriek.
 20:00 Bertso saioe: ESTITXU IZAGIRRE, ESTITXU AROZENA, ANDERE ARRIOLABENGOA, JON MARTIN.
 22:00 Mariachi Guadalupano.

Astelehena, 5

11:30 Umiendako jolasak.
 12:00 Meza santue.
 18:00 Kuadrila arteko pikie parkien.
 18:00 Arrasate Musikalen emanaldixe kultura etxien.
 19:00 Sorgin etxe txarangie.
 21:30 Herri afarixe. Txartelak salgai tabernetan.
 01:00 Kamioi musikala.

Txosnetan

Presoen lagunek egunero zabalduko daue txosna, 19:00etan. Betiko lekuen jarri daue txosna.
Zapatue, 3: manifestaziñue, 23:30ak inguruan, txosnetako kontzertuen tartian.
Astelehena, 5: Kuba Festa egingo daue, txosnetan, gauean. Mojito goxua izango da, freskatzeko eta Kubako giurarekin lotutako musikie.

Zapatue, 10

Goizien ziher arrantza txapelketa.



Wnboto

ramaixo aberna

Musika eta giro paregabea

Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

artizar



Label kalitatea duen esnea

Jai zorientsuak opa dizkizuegu!

Zabola-Azkoaga
ARAMAIO

945 445 924 / 679 162 499

UMEAK

Egitarau oparoa gaztetxoendako

la egunero egingo dituzte umeendako ekitaldiak

I.B.

Aurten ere umeak jaietako protagonistak izango dira. Euren dako, egunero, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte, eta umeak eurak ere hainbat ekitaldi prestatzen ibili dira.


Ezagun da edozein herritako jaietan umeek eta gaztetxoek asko disfrutatu dutela. Askotan, bizitasun handia ematen diote kaleari.

Horregatik, Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak egunero umeendako ekitaldiak egingo ditu.

Nabarmentzekoa da bihar, zapatua, Aramaio umeek eta gaztetxoek antzezlan egingo dutela. 22:00etan izango da, kultura etxean. Asteak egin dituzte ikuskizun hori prestatzen, gazte asanbladako kideen laguntzarekin. *Ipo txaren etxean* lan egingo dute, eta 4., 5. eta 6. mailako hamabost bat umeek esku hartuko dute. Gazte asanbladak lagundu egin du, eta dekoratuak eta aktoreen jantziak herritarrek egin dituzte.

TXISTEAK KONTATU

Antzezlan egin aurretik, umeak eta gaztetxoak txistek kontatzen ibiliko dira, giroa berotzen hasteko. Txiste batzuk liburutatik jasotakoak izango dira, eta beste batzuk umeek eurek asmatutakoak dira. Baliteke aktore gaztetxoek urduritasuna saihesteko baliagarria izatea. Antzezlanaz eta



Domekan jolasparkea izango dute umeek, 16:00etan hasita.

Txiste kontatzea, umeen antzezlan, abesbatzaren kontzertua eta barrakak izango dira, besteak beste, jaietan

txisteez gain, Papargorri abesbatzak kontzertua egingo du.

AURTEN, BARRAKAK

Aramaio ume txikienak zoriontsuak izango dira aurten, Udalak barrakak ekarriko dituelako. Txikie-

nendako autotoxokeak eta gainontzekoendako *Lapikoa* izeneko ipiniko dute.

Nafarroako enpresa batek ekarri ditu, eta martitzenera arte pilotaleku ondoan egongo dira. Udalak eta enpresak euro bateko txartela hitzartu dute.

TELEBISTA

Aramaio umeen jaietako saioa GOITBn

Eskoriatzako eta Elgetako jaiekin batera egingo dute

U.M.

Jaietz kalean bertan gozatu ezin duenari GOITBk aukera eskainiko dio jaiok etxean ikusteko. Martitzenean emitituko dute programa eta hurrengo egunean errepikatuko dute.

Goiena Telebistak ere parte hartuko du zelanbait Aramaio umeen jaietan.

Izan ere, programa berezia egingo du, jaietan ostean emititzeko. Hala, jaietako zenbait ekitaldi ondo ikusi ezin izan duenari beste aukera bat eskainiko dio, etxean, lasai, telebistan ikusteko.

GOITBren programa horrek *Jaiak 2004 Aramaio, Elgeta eta Eskoriatza*

izena izango du; izan ere, hiru herrietako jaiak batu egingo dute jaietako gainerako programa berezia.

ERREPIKAPENA

Lehen esandako moduan, martitzenean, uztailaren 6an, emitituko dute jaietako programa. 20:30ean hasiko da. Eta gero, hurrengo egunean errepikatuko egingo dute. Kasu horretan gauean izango da, 22:00etan hasita.

ZENBAIT EKITALDI

Halakoetan ohi denez, jaietako egitarautik zenbait ekitaldi jakin aukeratu dituzte telebistak, grabatzeko. Hala, Aramaio kasuan, gehienbat zapatuko eta asteleheneko ekitaldiak grabatuko dituzte jakinarazi digu Goiena Telebistako zuzendari

Oihane Agirrek. Esan digu, adibidez, *Koadrilen arteko pikie* zirraragarria eta interesgarria izango delakoan, hantxe izango dela telebista lekuko isil bezala guztia grabatzen. Herri afarira ondo moztortuta joatea komeni dela ere gaineratu digu Oihane Agirrek.

Bestalde, hori guztiori egiten, azken urteotan ibarrek jairik gehienetan ibili diren kazetariak jardungo dute lanean, Kepa Errasti aretxabaletarraren gidaritzapean. Besteak beste, Mikel Aranburu oñatiarrak eta Oihan Vega bergararrak parte hartuko dute programa berezian.

Eta jakina, bide batez, Aramaio umeen jaietako, Elgetako eta Eskoriatzako jaiak ikusi ahal izango dira martitzeneko programan.



Azken urteotan jaietako programa berezia egin izan du Goiena Telebistak.

UXARTE

• Bost logela komunekin

• Bazkari eta afariak

* Telebista logelatan

Nekazaritza

Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 • Faxa: 945 44 59 10

uxarte@euskalnet.net

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinak eta autoen salmenta eta konponketa.

Olio, gurpil eta balazten konponketa

Ondo ibili jaixetan!!

Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

KOADRILAK

Proba bereziak koadrilendako

'Kadrila arteko pikie' deitu diote ekitaldi berriari

U.M.

Aurtengo San Martinetako berritasunen artean, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak ekitaldi berezia antolatu du herriko koadrilendako. Helburua: elkarrekin ondo pasatzea.

Astelehena aukeratu du gazte asanbladak *Kadrila arteko pikie* egiteko, biharamuna kentzeko-edo. Eta gainera, oso proba berezi eta originalak antolatu dituzte. Antolatzaileek kontatu digutenez, ekimen horren helburua da 16 urte-tik gorako ahalik eta jende gehienak parte hartzea ekimenean, elkarren arteko harremanak sakontzeko eta elkarrekin ondo ibiltzeko, hain zuzen ere.

PROBEN NONDIK NORAKOAK

Denetik egin beharko dute *Kadrila arteko pikie*-n parte hartzen dutenek. Esaterako, sokatiran eta aitzurjaurtiketan jardun beharko dute. Baina horrez gainera, proba bereziagoak ere egin beharko dituzte.

'KATXITOLDO' ETA BESTE

Adibidez, *Tonto buelta* izena ipini diote halako proba bati. Azken batean, makila bati bueltak eman beharko diote parte-hartzaileek, errelebuka.

Eta *Katxitoldo* izena ipini diote halako beste proba bati. Urez betetako katxi bi eskuetan hartu eta urez eta xaboiz bustitako plastikoa zeharkatu beharko dute gazteek, ortozik. Ur gehien piltzea da probaren funtsa.



Gazteen artean ondo ibiltzea da ekitaldiaren helburua.

ARTXIBOA

'Tonto buelta', 'Katxitoldo', 'Chiquilin jana' eta beste hainbat proba antolatu ditu Gazte Asanbladak

Beste proba batean, lasterketa egingo dute, zeinek lau *Chiquilin* jan agudoen. Eta seguru aski, segan ere egin beharko dute lehiaketako parte-hartzaileek, baina artaziekin.

Talde guztiek egin beharko dituzte proba guz-

tiak. Gero, irabazleendako oparixoa prestatu dute antolatzaileek.

Duda barik, parte-hartzaileek eta begira daudenek une dibertigarriak bizi izateko aukera izango dute *Kadrila arteko pikie* ekimenaren bitartez.

TXIRRITOLINPIADAK

Herritarrendako: Txirritolinpiadak

Zapatuan 18:00etan hasiko dira, Bañera parkean

U.M.

Urte olinpiarrean gaude aurten, eta Aramaion ere olinpiadak ikusteko aukera izango da, nahiz eta beste mota batekoak izan: Txirritolinpiadak, herritarrendako ezin hobekak.

Bosgarren aldia da Txirritola Euskara Elkarteak Txirritolinpiadak antolatzen dituela. Ohi bezala, aurten ere zapatuan jokatu dira olinpiada berezi horiek, 18:00etan hasita.

ADIN GUZTIENAKO

Txirritolinpiadetan adin guztietako jendeak parte hartzea gura dute antolatzaileek; hori lortzeko, adinaren arabera bi zirkuitu

prestatu dituzte. Hala, Zirkuitu Urdina 12-16 urte bitartekoei zuzendutakoa da. Iaz bezala, Bañera parkean hasiko da gazteendako ibilbide hori. Irubietta, Arriola, Arrikoiti, Arraburu, Iturrieta, Ibargoiako bidegurutzea eta Bañera parkea; horixe da egin beharreko ibilbidea. Jakina, ibilbide hori ezin izango da egin norberak nahi bezala. Hasi, bizikletaz hasi beharko dute, Arrikoiti baserriraino; handik parkerako bidea, berriz, oinez egin beharko dute, eta ibilbidea bukatzeko, trebezia proba egin beharko dute parte-hartzaileek. Hain zuzen ere, beste urte batzuetan trebezia proba horren gaineko nondik norakoak kontatu izan ditugu hemen, baina aurten, antolatzaileek nahiago dute isilpean gor-


de, lehiaketa zirrara-riagoa izateko.

ZIRKUITU BERDEA

Nagusiendako ibilbideari Zirkuitu Berdea izena ipini diote. Hori ere Bañeran hasiko da eta Irubietarantz joko du, baina, gazteek ez bezala, nagusiek Irubietatik Kurtzetarako bidean gora egin beharko dute. Handik Urbarrira joan beharko dute; gero, Arriolara, Arexolara, Arrikoitira, Arraburura, Iturrietara eta Ibargoiako bidegurutza, eta Bañera parkera itzuliko dira.

LAU SARI

Sariak izango dira irabazleendako: nagusiendako, 160 euro talde irabazlearendako eta 120 euro bigarrenarendako. Gazteen mailan, 120 euro irabazlearendako eta 80 euro bigarrenarendako.



Lasterketaz gain, trebezia froga ere egin beharko dute, talde bakoitzeko bi lagunek.

ARTXIBOA

MURU landetxea



- 3 logela bikoitz komunarekin Egongela
- Sukaldea erabiltzeko aukera

Gantzaga auzoa • Tel.: 945 44 53 65

BA

BEHI-ALDE

ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

44 posta kutxa
20500 Arrasate

M MONDRAGON
CORPORACION
COOPERATIVA

Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15

ONDO PASAU SAN MARTIN JAIK!

KIROLA

Plater tiroketa Kurtzetan

Plater tiroketako San Martin saria jokatu dute

U.M.

Kirol kontuetan, San Martin jaietan ohituraz izaten da plater tiroketan ekinaldia egitea. Eta aurten ere hala egingo dute. Zapatuan izango da, 17:00etan, Kurtzetan.

Jaietan, San Martin saria jokatu dute Kurtzeta-Gain taldeko kideek. Elkarteko Juan Luis Nafarratek jakinarazi digunez, aurten arratsaldean jokatu dute proba, 17:00etan hasita. Betiko moduan, Kurtzeta gainean elkartuko dira tiratzaileak. Zebatek parte hartuko duten zehaztu barik dago; baina, elkartean 50 bazkide direla jakinda, antolatzaileek uste dute 30 bat lagunek parte hartuko dutela.

HAMABOST PLATER

Aurtengo proba 15 plateretara izango da. Eta nahiz eta etxeko arteko lehiaketa izan, Kurtzeta-Gain elkartekoek sariak prestatu dituzte. Irabazleendako ez ezik, antolatzaileek adierazi digute ahaleginduko direla partaide guztiendako ere zerbait lortzen.

HURRENGO AREGOLAN

Eta hemendik aurrera, egutegi zabala izango du Kurtzeta-Gain elkartek. Hil honen erdialdean, Arexolako jaietako tiradan parte hartuko dute; gero, abuztuan, Uribarriko San Esteban jaietan eta Barajuengo Andra Mari jaietan jardungo dute eta irailean, Gantzagako jaietako sariarekin bukatuko dute tirada



ARTXIBOA

Antolatzaileek jaietan 30 bat lagunek parte hartzea espero dute.

San Martin sariaren ostean, herriko auzoetako tiradetan parte hartuko dute Kurtzeta-Gain elkarteko tiratzaileak

lokalen egutegia. Era berean, irailean hasieran, tirada probintziala izango dute.

Eta hori guztiori baino lehen, Arrasateko San Juan jaietan ere parte hartu dute Kurtzeta-Gain taldeko kideek. 15 plateroko tirada egin zuten, eta Juan Luis Nafa-

rrate gailendu zen, 15 platerak botatzea lortu zuen eta. Beste bost lagunek 14na plater bota zituzten, eta berdinketa hausteko saioa egin behar izan zuten. Hala, Enrique Ullibarriarana izan zen bigarren eta Martin Arriolabengoa hirugarren.

KIROLAK

Bizkaitik datozen harria zulatzera

Herri kirol berezi horren erakustaldia izango da

U.M.

Bizkaiko harri-zulatzailak Aramaion izango dira, domekan, 18:30ean. Meatzarien eta harginen lanbidean oinarritutako herri kirola egiten dute. Gaur egun liga eta guzti egiten dute.

XIX. mendeko azkeneko urteetan, meatzetan eta harrobietan bazen lanbide berezi bat: harri-zulatzailena. Harriaren zuloak egiten zituzten gero han dinamita kartutxoak sartzeko. Horrelakoetan ohienez, lanbidea plazara eraman zuten meatzarien koadriker, kirol moduan. Gallarta, Urtuella... inguruko jaietan oso komuna izaten zen. Edozelan ere, Espai-

niako gerra baino lehen, lanbidea desagertu egin zen, eta haren ostean baita herri kirola ere.

BERRESKURATU GURAN

Gauzak horrela, 1998an Urtuellako Euskal Jaietan berreskuratu egin zuten harri-zulatzailen lanbidea, herri kirol moduan. Harrezkero, Bizkai aldeko herri askotan egiten dituzte halako erakustaldiak. Are gehiago, gaur egun, liga txapelketa ere jokatu dute Bizkaiko zenbait herritako taldeen artean. Hain zuzen ere, domekan Aramaion jokatu duten proba puntuagarria izango da liga txapelketa horretarako.

Hala kontatu digu Meatzaldeko Harri-zulatzailak taldeko Jabier Santamariak.

ORDU ERDIKO SAIOA

Jabier Santamariak jakinarazi digunez, Aramaion Bizkaiko hiru talde etorriko dira: Urtuella, Txorie-ri eta Trapaga. Talde bakoitzean, hiru harri-zulatzaila eta botilero bana izango dira. Hala, proban, harri-zulatzailak 30 minutuan ahalik eta zulo gehien egin beharko dituzte, hamar zentimetroko sakontasunekoak. Zulo horiek laztabarrekin egingo dituzte. Bi metro inguruko barra luze modukoa da laztarina, altzairuzkoa. Hala, laztarina hartu eta harriaren kontra jaisten dute indarrarekin; hala egiten dute zuloa.

Aramaionko saioa, liga txapelketarako puntuagarria izateaz gain, irabazleei oroigarriak emango dizkietela esan digu Jabier Santamariak.



MEATZALDEKO HARRI-ZULATZAILAK

30 minutuan ahalik eta zulo gehien egiten ahalegindu beharko dute harri-zulatzailak.

ARBEL S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak



Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio

GOIKO

taberna

Nardeaga 25
ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 14


BESTELAKOAK

Aipatu beharreko bestelako ikuskizun eta ekimenak

Dantza-saioa, kantuak, bertso-saioa eta urteroko herri afaria egingo dituzte San Martinetan



PAPARGORRI ABESBATZA Ordu erdiko errepertorioa prestatu dute Papargorrikoek zapa-turako. Bederatzi kantu abestuko dituzte: *Uso Zuria, Iturengo Arotza, Aitak eta Amak, Atzean Motzean, Begiak, Azokara, Alfabeto, Escala Musikal* eta *Umirez*. 14 neska-mutikok jardungo dute kantuan, zapatuan, 22:00etan, kultura etxean.



BERTSOLARIAK Aramaion dagoen bertsozaletasuna kontuan hartuta, ezin falta halako saiorik jaietan. Domekan izango da, 20:00etan. Nabarmentzekoa da lau bertsolari etorriko direla, eta horietatik hiru emakumeak izango direla: Estitxu Izagirre, Estitxu Arozena, Andere Arriolabengoa eta Jon Martin.



LAGUN ARTEAN DANTZA TALDEA Berezia izango da San Martin jaietan Lagun Artean dantza taldeak egingo duen ekitaldia. Izan ere, aurreneko aldiz, umekin batera jende gazteak ere jardungo du dantzan. 30 bat dantzari ibiliko dira, domekan, 13:00etan.



HERRI AFARIA Gazte asanblada ere akordatu da urteroko herri afariarekin, eta, ohi den moduan, jaien azkeneko egunean egingo dute. Menua aurreratu digute: paella, oilaskoa eta ardoa eta sagardoa. 12 euro kostako da.

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

dukiena
J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena